

A.T.V.
604

JAUNGOIKO-ZALE'REN IDAZTIAK

**SAKRAMENTU DEUNA'REN
DOMINGO ABA**

IRUKOIZ'TAR ORTOZAREN
BIZITZ-EDESTI LABURĀ

ooo

Gorostiaga'tar Eulogiok

A.T.V.
608

M-4000
R-613

A.T.V.
608

JAUNGOIKO - ZALE'REN IDAZTIAK



JAUNGOIKOAREN OTSEIN

SAKRAMENTU DEUNA'REN DOMINGO ABA

IRUKOIZ'TAR ORTOZAREN

BIZITZ-EDESTI LABURĀ


Gorostiaga'tar Eulojio'k



ZORNOTZA'N

JAUNGOIKO - ZALE'ren irarkolan

1929



Jaungoikoaren otsein Sakramentu Deunaren Domingo Aba

SARĒREA

Erlejiño zaletasuna otzitzen, kristiñau siñesmena amatetan eta Jaungoiko gauzetarako arduragabekeria, leku guztietan lez, geure euskal-erian be zabalduten asi danean, Jaungoikuak angeru bat emon dausku, siñesmen bero ta bene-benetako Jaun-maitetasuna erakutsi dagian eta bide-erakusletzat bera artu daigun.

Etxe-zaletasuna, oitura zañak eta geure izkunea, orma zar eta sendoen antzera, kristiñautasun zintzoa yagoten ebenak alde guztietatik arerioaz inguratuta, luñera jausi beañean dagozanean, euskalzale ta antziñako oituren maitalea izan dan euskaldun argi bat, luñ onetan be santu usaña dariola egoana, Jaungoikuak zeruratu egin dausku, andik zaindu daizan geure-geureak dirian ainbeste ta ainbeste gauza, oneik yagon ezkeru, Jaungoikoaren aginduak obeto gordeko doguzalata.

Baseñietaraño be azaletiko yakintzea eldu ta eleiz-gauzatan ez yakinkeria sartu danean, geure Jaunak, bere otsein bat bialdu dausku, eleiz-gizon eta irakaslai esaten euskel-kristiñauen buruak argituteko, ez yakinkeria erlejiñoen areriorik aundiena dala-ta.

Kristiñauak burua erakustaren (1) eleizkizun eta jaikunetara datozen aronetan, Jaungoikuak santu bat damosku, iñori yamon bari egikisunak egin gure dituana.

Deabruaren asmueri yañaituta, ta eskontzako legeak apurtuta yayotzak gitxituez do-yazanean, neba-añeba asko dirian artetik bat aututea, gure egileak ebatsi dau, guk geure egitadak zuzenduteko argi bat euki daigun.

Jaungoikoaren aingeru, guri yañaipidetzat emoten yakuna, ¿ba'dakizu, irakurle, nor dan? Sakramentu donearen Domingo Aba irukoitzara (trinitarioa) (Ituñate eta Zubero'tar Domingo), mile ta bederatzireun eta bat gañen urtean, Dima'n, Bizkaiko eñian, Añatia deri-

(1) Eleiz-gaztedien izenian, urte bete eztala itaun batzuk egin nituanian, au erantzun eustien batek baño geyagok, au egia ezpalitz, oitura obeak eleitikez egongo ba? Eleizkizunetan zintzotasuna egon ezkeru, oituretan ainbeste ustel-usaiñ ezin izan leiteke.

*txon ibarean yayo ta ogetasei urtegaz santu
usañean il dana. Bere bizitzea liburu onetan
daukazu.*

*¡Irakurle! lurlangile, nai ařantzale, ikasle
nai irakasle, eleiz nai efi-gizon, Sakramentu
deunaren Domingo'n bizitz-edestian ikusiko
dozu, deunduteko, santu izateko, nor beren bi-
zibideko egin beařak betetea naikoa dozula,
uts eta akatzak, Jaungoikoaren graziagaz
kendu geinkezalako. Eta deun izateko, kris-
tiñau zintzoa izateko, kokolua zetan izan ez-
tagoala, ba askok uste dau santua izateko
ezer yakin ez, (1) eta burua makurtuta ibili
bear dala; onan uste izan ba'dozu, ikusiko
dozu Domingo'k erakusten dauskula; burua
yakituriz beteta ta biotza maitetasun ganaz
eukita deundu leitekela.*

Egileak.

*1929'ko Epailaren 11'an Eulogio deunaren
jainkundean.*

(1) Gatx au antxiñatik datořena da. Jeronimo deunak iñoan:
«Tentelkeri aundienetaikoa dauntasuntzat daukie... ezer ez da-
kielako, deunak ba'lira lez». (Hieron. Epist. XXVII ad Marc. c I).

LENENGO ATZALBURUA

Domingo'n yayotzea.—Txikitako gauzak.—Umetatik Jaungoiko-zale. (1901-8).

BIZKAIAN, Aratia'ko ibarean, Dima'ko erian, Biteriño'ko auzunean (eritik lau kilometro aneurkin inguruan) 1901'ko Oñila (Mayatza)-ren 11'an gabeko amaġetan yayo zan Iturġate eta Zubero'tar Domingo. Bere yatorġiatzaz asko dala uste dot esatea: gurasoak Iturġate eta Olabaġi'tar Simon eta Zubero eta Soloeta'tar Marta ziriala, yayotzaz eta bizitzaz Dimataġak, Biteriño'n iru etxen yabe dirianak, euskaldun zintzo eta kristiġnau onak.

Euskal-erġi geyenean dagoan oitura txalogarġari, (ainbat lasterġen kristiġnaututeko) yaġaituta, yayo ta urġengo egunean, Pedro deunari izkindutako elexa nagusian bateatu eben. Bateotzalea Uriarte eta Lapatza'tar Martin zan eta aita-amabitxiak, aman aldeko aitaita ta aiten aldeko amama Zubero eta Zubero'tar Jose,

ta Olabañi eta Soloeta'tar Maria Antonia. Egun atan Kaltzada'tar Domingo deunaren yaia zalako, deun onen izena imini eutsoen. Guztiz gorlagari da seme-alabai deun izena imintea, norberen izena norgandik datoñen yakin gura izaten dalako, ta gero aren egikizun eta gurarizale, asko ezpada be, apur bat berez-berez egiten dalako.

Domingo'n gurasoak seme asko euki dabez (amaika) Jaungoikoak emoneko ugaritasunari eragozpenik imini eztautsoelako. Eta txiki-txikitatik guzti-guztiari erlejiño gauzak erakusten alegindu ziran. Erakutsi edeñak, bai edeñak emoten dabez aro onetako kristiñau askontzat. ¡Yaraitu beye luñeko ondasunetan ardura lañ ezañi, ta zeruko gauzakaz aiztuta, eskontzan Jaungoikoaren legea apurtuta seme-alaba gitxi gure dabezanak! ¡lkasi beye ainbeste ta ainbeste gurasok dotriñean ardurea irakasle ta abadeentzat izten dabenak, euren zeregin beañenekoa aintzakotzat artu ez da!


Oindiño berbaz eze kiela amak eskutik oratuta «Kurutze Santuaren» eta «aitearen» eginazoten eutsozan. Berbetan asiegaz batera *aita gurea* ta *agur Maria* ikasi ebazan. Lau urte baño lenago *Jesukristo neure Jauna* ondo esaten eban.


Gurasoen ardurea, batez be amarena, erlejiño gauzak txiki-txikitatik bañuraño bere biotz samuñean, sartzea zan. Kurutzea erakutsi ta itzaltasunik aundienagaz irakasten eutsan zelan Jesukristo'k gugaitik ainbeste ta ainbeste neke igaro ebazan. Ona izan zeitela sañi esaten eutsan, ona izan ezker gozoak yaten betiko atsegintegian egongo zala-ta. Txaña izan ezker gozoak betiko nekeetan inpernuan egon bearko ebala...

Domingo'n gurasoai ondo letorkie bere semea dala-ta Tobias'gaitik esaten dana... *ab infautiatimere Deum docuit* (I, 10) «Jaungoikoa-ren bildura txikitat'k irakatsi dotso».


Yantziak, lelengo gonak eta gero prakak, orkatiletarañoakoak erabilten ebazan. ¡Onetan bai guraso geyenak orain arduragetasuna iragarten dabela! Umeak erugeak dira, euren griñak eta aragia lo dagoz; baña yantzi laburak diriala - ta, gaurko egunean lenago itxartuten yakez.

Agirian egiten diran yolas edo olgetak geyen atsegin yakozan. Bere amak dirausku *kin-kinka* gogokoen izan yakola. Umeak berbaz eta oituraz garbiak euki gura dabezanak, euren yolasak zeintzuk dirian yakiten alegin egin be-





Jaungoikoaren otseña yayo zan etxea



Jaungoikoaren otseña ugutzaua izan zan pontea

gie: Leku bakarean egiten diranak arisku aundia dauke; *zineak*, onena'k be, kaltegarí dira, yazopenak ikusita diñot, *zinea* neuk emoten izan dot eta.

Ondo irakatsiak beti dakar onurea, Ona emen bere amak diñoana: «Sei urte inguru eukazala erlojue yoten entzuten ebanean eta neu éreze-tan asten ezpanintzan, berak esaten eustan: *¡Ama! erlojuek yo dau*. Eta nausien moduen erantzuten eustan». Yazokun onek mirarigei aundirik eztauko; bakarik ziurpetu egiten dauz esakun zarak: *zer ikusi a ikasi*, ta *umeen sentzune etxean entzune*. Umeai txikitan, nagusiak egiten dabena egitea, atsegin izaten yake. ¡Umeak asten zabizienok! Egikizun onak egin eta ondoen onan irakatsiko dautsazue.

Gurasoen ikasbideari yaraituta, guzuía benetan gorotetan eban, onan dirausku amak: «Guzurik iñoz be ez eustan esan; iñogaitiño txarik bez. Saspi urte inguru eukazala auxe yazo yatan. Domingo ta bere anai Pedro gaztañaduire yoan ziran gaztañetara; etxera etori zanean Pedro'k esan eban. *¡Ama! Pedrotxinek gaztañaduire beyak eroan ditu gaztañak yaten*. Domingo'k erantzun eutson: *¡Esto zu ondo esan! ak gaztañaduire gaztañak yaten ez ditu*

eroan, gaztañeduitik igaro baño ez ditu egin.

Saspi urte baño lenago amagaz mesara yoa-
ten zan, eta elexan geldi ta itzal andiagaz otoi
egiten egoten zan. Benetan bizkoía izatea «es-
pabilaue» egiz izatea, auxe da, ta ez ume kos-
koíetatik berba ganorabakoak esan... zigañoak
ére... Onango gauzak egiten dabezanak urten-
tzat eukiteak ume artean egiten dauzan kalteak
esan be ezin leiz.

BIGAÑEN ATZALBURUA

Autorkuntza edo konfesiñoa lenengoz. — Jaunartzea. — Deun bidean sartuta. — Eskola mutil. Frailetzarako asmuak. (1907-17).

SASPI urtegaz gure Jaunik ezeban artu, orduan oitura etzalako, baña bai autortu edo konfesau, gertaera onagaz; eta Sakramentu onen aunditasuna ta indaía asmetan gazterik asi zan. Bere ikaskide zan Peli abak dirausku, egun baten, Domingo autortu edo konfesetan elexa nagusira etoñi zala, ta bidean eskola-lagun bat aurkitu, ta ixeka (burlaka) ta irika asi yakola, Domingo benetan samindu be egin eban eta egun atan konfesau ezpalitz, mustuñeko batzuk emon edo lepoa berotuko eutson; baña ur-engo egunean Gure Jauna artu bear ebala-ta, aragien aldetik olango orduetan berez datozen bultzakada ta berotasunari eutsin eta ezer ez eutson egin. Ezer ez-eutsola egiten ikusi ebanean, arotuta bizkortuaz, yañaituten eutsan os-

tean baře ta ixeka egiten, Domingo bařiz bere artean esaten yoyan: *Autortu ezpanintz, gaur otzik ezeban eroango ořek*. Mutil koskořak, yamonik ez eutsola egiten ikusi ebanean, gogaitu ta bakean itxi eutsan.

Autortuten yoaten zanean beste umeen antzera okeřerietan etzan ibilten, konfesonario edo autortegi alboan, ixilik eta bakean bařo. Au egitorduan, egia da, bere zeregiņa bete bařo ezeban egiten; bařa edonok daki umezaroan odolena bizitasunak eragin-da edo... umerkeriak eta okerkeriak egin barik egotea gauza gatxa dala.

Autorkuntza edo konfesiņoko sakramentuak emoten eutsan indar, laguntasun eta graziari erantzunda, okeřerietatik alde egiten eban. Bernaola'tar Bernardino, Domingo'n auzunekuak diņo: «Gu eskola bidean ormako ařiak botaten, edo arbolak ařiekaz maľatuten ibili ařen, Domingo'k onetariko gauzarik ez eban egiten».

Gurasoak euren egin beařari ondo begituta ainbat geyen irakasten alegindu ziran, lelengo etxean erlegiņo gauzak eta gero ikastolara bialduta. Lautan ibili zan Domingo: Dima'koan, San Kristobal'goan (Yuře'n), Obakoan (Dima'n) eta San Balentin'goan (Dima'n), gurasoak on-

doen eta geyen irakasten zan lekura yoatea gura eben-da. Eskolara beti pozik yoaten ei zan. Eta lesiñoa (ikaskaia) beti ikasten eban, eta itandu ezkerro ia ekien, bare bakañik egiten eban, bayetzik ez.

San Kristobalgo ikastolan irakasleak pilaan bere ondora eroaten ei ebazan lesiñua edo ikaskaia artuteko, lelengo asten ei zan gitxien yakiten ebenakaz, eta Domingo'k beti yakiten ebalako, azkenengo itanduten ei eutson.

Bernaolak dirausku, bein baten iñok be ikaskai edo lesiñoa ezebala yakin Domingo'k izan ezik, «gero eskolatik urten eta etxerantzean, bidean oratu, yo ta negaiez imini gendun, guk lesiñorik yakin ez, eta ak bañiz beti yakiten ebalako; berak bañiz ez euskun ezer esan, asañerik erakutsi bez, ez orduan ez iñoz be».

Irakatsi onetatik eleiz-zaletu zan eta gustiz atsegin izaten yakon mesa erazotea. Bederatzi urte inguru eukazala meza-erazotzale egin zan. Yazokun au bere amak edestuten dau: «Don Domingo Murgoitio, pañokoa, San Milan'era mesea esaten etoñi zan: Domingo'ri deitu eutson mesea erazoten yoateko; baña zer-edo-zergaitik atzeratu zan, eta bera yoan zan orduko, Antonio Uriarte gaztea, mesea esateko altarea

gertetan ibili ei zan eta berak (Uriarte'k) mesea be erazo eban. Domingo'k mesea entzun eban; baña gero, etxera etori zanean, negar da negar egin eban eta tamal aundia eukan, pařokoak deitu ta berak axe mesea erazo ez ebalako»

«Amar urte inguru eukazala,—aitak edes-tuten dau,—gabon zar egunean, beřogei zentimetroko edurtzea egoala, eta goxean oindiño ilun, neuri esan eustan: *Gabon zar egune da-ta, mesea entzun bear dot; ni banoa beintzat.* Biok yoan giñean eta bidean esan eustan: *¡Aite! ¡ni bakařik etori banintz, zelan ibiliko ete nintzan! bidea zuzenduko ete neban?* Elexara, pařokiera yoan eta mesea berak erazo eban».

Esan danetik naikoa adierazo da zelango poz eta guraria euko eban Geure Jauna artuteko, idazti deunen berba onek ondo ezaři euki-ozan: «Basauntz zauritu ta egarbereak ur otz eta ituři garbia bilatzen daben lez, nire arimeak be, zeu, neure Jaungoikoa, gura zaitu». (Ps. XLI.).

Orduko oiturari yařaituta, amar urtegaz geure Jauna artu eban. Domingo'n biotz samur eta esker-onekoa ezagututa, ĩnok esan lei Jesus eta Domingo'n artean yazoten zana? Jesus'ek esango eutson: «Ene semea ekazu zeure biotza». (Prov. 23). Eta Domingo'k, maitetatsunean ur-

tuten, biotza Jaungoikoari emon eta esango eban: «Bizi naz ni, baña ez, ni ez, Kristo da nigan bizi dana».

Jaungoikoari eutson maitetasunez bere gorputz bigunari pozak ukatuten txikitatik asi zan. Itxartu ta lasterean oyen berotasunak emoten daben atsegiña alde batera itxita, udan seiretan yagiten zan edo lenago ta neguan egunagaz batera.

Jesus'eri eutson laztantasunagaitik ariskuetatik urinduten aleginduten zan. Agustuarien (Dagonilaren) bigarren domekan, Artaun'go auzunean yai egiten da ta yantzea be bai; amaika urte eukozala Domingo'k ba, ume ta lagun batzuk batuta, esan eben: Artaun'era yoan bear yoagu; baña Domingo'k: ez, ni ez, ni elexa nagusira erosario edo agurtzara esan, eta Artaun'era yoan barik Elexara yoan zan.

Gure Jaunak emoten eutsan graziagaz eta bere alegiñagaz ontasunezko bideari bakañik yafaituten eutsan. Len aitatu dan Bernaola'k diño: Umore txarean, asafatuta edo alkar yoten iñoz ez ebala ikusi, ez susmau, ez entzun.

Ontasunean beti auferantza yoan afen, ari-gari ez egiten aleginduko zan, yokoetan bere lagunekaz ibiliko zan; batean txirikilan, bestean

salka, orain tronpan eta urangoan kinkinka...


Esanak egiten zoli-zolia, etxekoari lagunduten eutsen bein itauren bein ituriko ura ekarten, eta umeai yagokoezan beste beařetan.

Siñesmena sendotuteko eta bildur barik agertuteko indařa emoten daben Sendatza edo Konfirmaziñoko sakramentu deuna 1913'ko Dagonila'n 26'an artu eban; Gazteizko gotzain (obispo) Kadena-Eleta'tar Jose yaun argi-argia zan emotzalea ta Aldekoa'tar Antonio aitabitxi.

Jaungoikoaren graziari beti zintzo erantzuten eutson Domingo'k, eta Jaungoikoak munduko ariskuetatik aterateko, praile edo lekaidetzako dei-egin eutsan. Aitak eta amak diñoe: «Amar urte inguru eukazala asi zan esaten: *nik praile yoan bear dot*».

Luř onetako gora-berari begitu ezkerro, prantziskotařetan (franziskanu) sartu beař ebala esan eikian, bere osaba Zubero Aba, prantziskotařen Oliteko lekaidetxean (konbentuan) nagusi zan-da. *Olite*'tik egiteko deiari begira urte bi egon ostean, (1) bere ixeko Zubero'tar Justa

(1) Bizitz-edesti au idatzita, Zubero'tar Kepa abagaz ikustaldi bat euki dot eta diraust: «Domingo'k eta bere etxekoak arauz eskatimerik ez eusten egin. Egitekoan be eskatimea Aran-





Jaungoikoaren oiseñaren guraso ta anai-arebak (Inazio ez)



Zubero'tar Juste andrea, Jaungoikoaren etseñaren
ixekoa

andreak itandu eutson, ia Irukoiztañak (trinitarioak) ezagutzen ebazan eta ia eurretan sartuko zan. Bayetz erantzun eutson, ezagututen ebazala, Gizakundearen Luzio Aba itzaldiak (sermoiak) egiten Dima'ra ta Artaun'era etoñita ikusi ebala ta, sartzeako be bañiz gertu egoala. Erantzun au entzun orduan ixekoa Algorta'ratu zan, Nagusiagaz berba egiteko, (aro atan lerkundearen Silbestre aba zan); adierazo eutsozan Domingo'n prailetzarako asmoak, bere onberetasuna ta adimen zuña, ta geyagoko barik bayezkoa emon eutson: Bateo ta Sendatz garbitasunak (zertifikaduak) ta bizikera onaren argibidea asko zituan Algorta'ko Irukoiztañetan (Trinitarioetan) sartzeko.

tzazu'ko Nagusiari egin bear yak n. Orduan Arantzazu'n bekak egozan baña guztiak emonda; augaitik Domingok idazkiz iragarí añen Prantsiskanu sartzeko guraria eta nik lortu neikian añen bes'e bateri bekea kenduta, zintzo yokatutea etzan izango. «Eskutitz batzuk idatzi eustazan eta «Bien-Aparecida»n ikustaldu be egin neban. Azkenengo gexoan urutidatz bat bialdu eustan Madrid'era yoyala eta bultzira urtetako, baña itzaldia neunkan ordu atan eta ezin neban neure lobearen guraria bete».

IRUGAÑEN ATZALBURUA

Algorta'ko lekaidegeien ikastetxean (konbentuan).—Gexoagaitik etxera etorri beara.—Le-kaidetxera (Konbentura) bañiro.—Onbidean aurera. (1914=17).

MILLA ta bederatzireun eta amalaugañen urtean, Irañan ogeta amañean, Algortako konbentuan sartu zan Domingo; baña ez bere gogoa ondo erakutsi barik eta eragozpen barik be ez. «Etxetik Algorta'ra—aitak edestuten dau—Trinitarioetara San Migel biramonean urten eban neugaz batera, ta bidean, arantza goazala, esan neutsan: *eu az zafena ta i yoan ezkerro, etxean zelan geratuten gozak ba?* Orduan aldi atan iketzetea ta karabaiko lanak neunkazan. Domingo'n erantzuna auxe izan zan: *Ni gora-bera egin bearko ditue, ta euroi laguntzeko eztauke ba neure urango anayea?* Egia esateko: nik neuk praile bialduterik ez neban gura: eta zan etxeko beañakaitik. Ama'k, oster, beti gura eban semea praile sartzea».

Domingo'k poztasuna ta bakea, alaitasuna ta gogoko atsegiña aurkitu ebazan lekaidetxean sartueran; baña luí onetan zoriona labuía da, ta ilabete ta lau egun egin ondoren, buruan disipuleak urten eutsola ta, etxera bialdu eben. Atsekabe onetan itxaropena galdu barik, laztasunak Jaungoikoagan bigunduten ebazan: domeka guztietan geure Jauna artu ta mesa bi entzuten ebazan. Amak diño: «Bein baño saí-iago negárez ikusten neban; eta neuk be itanduten neuntson: ia negar zegaitik egiten eban. Eta berak erantzun eustan: Aintxe oyen (1) izan ezik, ez eukala biziteko pozik».

Geure Jaun eta Jaungoikoa ta Andra Maria geure Ama erukitu ziran Domingo'n atsekabeakaz, eta ile bi inguru etxean egon ostean, Algorta'ko Aba Nagusiak aitari idatzi eutsan. Ara amak diñoanetik idatzi ebana: «Gure mutila atzera konbentura yoatea gura ebala, ta bere gatxa edo gexoa ain gauza gitxi izango zala, yakin ba'leu, ezeuela bialduko; ta burua garbitu orduen bertatik eruateko, bada egin eban denporan ondo portau zala».

Baí au artu ebanean etzan txikia Domin-

(1) Lekaidetxekuan (konbentukuan).

go'ren poza, Dabita igarlearen antzera berak be esan eikian: *Secundum multitudinem dolorum in corde meo: consolationes tuæ lætificaverunt animam meam.* «Nire biotza minuriolak samindu eben lez; zeure pozak nire ari-mea alaitu dabe».

Bañoiro lekaidetxera yoan zan eta Jaungoikoa geroago ta geyago maitatuten alegindu zan.

Biotz samur eta gazteak berez-berez etxerantza bultz egiten ba'dau; Domingo, Jaungoikoaren benetako maitetasun sutsuak izan ezik, lekaidetxian (konbentuan) ezeikian gelditu, gurasuak be etxerantza deituten eutsoen-da. «Domingo Trinitario sartuta urango urtean,—amak dirausku—alaba Maria'gaz Algortara yoan nintzan, bera lelengoz ikusten, domekaz. Beste gauza batzuen artean Domingo'k ariebeari esan eutson: *¿mesea entzun dozu? ¿baña ondo entzun dozu? mesea ondo entzun bear da.* Egun atan bertan itandu neutson auxen: *¡Domingo! ¿Eman ala etxean gura dozu?* Begira-begira ya'ri yatan eta apurtxo baten egonda erantzun eustan: *¡Ama! ¡ori esaten daust ba! Nik ementxe.* Eta au esan eban biozkadearen-biozkadeak, benetako tamala emon eustan,

damutu yatan esana, ta neure gogoari esan neuntson: *geyago olango gauzarik ez dautsot esango*».

Bere ikaskideak diñoe lekaidetxean sartu zanean, osasun eta indartsu antza eukala ta arpegi onekoa zala. Baten batek uts txikiak be asmau eutsozan eta arokeri-usain apurá be bai. ¡Irakurle! Utsak euki ebazan, baña Jaungoikoaren graziagaz eta bere alegiñagaz ondatu ebazan.

Lekaidetxeko lelengo urtean, Jesus'en Jose Aba'k dirausku, besteen artetik etzala galenduten, bere ikas-zaletasuna ta ixiltasuna agertuten zala baña. Bigarren eta irugarren urtean, diño izentau dan Jose Aba'k, guztien artetik Domingo'n Jaungoiko-zaletasuna, irakasleak adierazoteagaz batera esanak egiteak, eta bere egikizunetako eratasunak argi egiten ebela, ta orduan asita, bere gurariak aragia atsekabetutea zirala esan eikela.

LAUGAREN ATZALBURUA

Jaungoiko-zaletasunian sakondu.—Ikasteetan
aureratu.

BENETAN Jaungoiko-zalea danak lelengo euki bear dauan ardurea, bere bizipideari dagokiozan eginbearak ondo betetea da. Onan ba Domingok, Algorta'ko ikastetxean eukien arautegi edo ereglamentuari yaraituten lelengo malan egoan.

Goxetan lauterdietan yagiten ziran, eta Domingo'k yagiteko txiliña entzunagaz batera oia isten eban; ondo ekien ba: «Goxetik Jaunaren bila dabizenak idoroko dabe» la ta. (Prov. VIII, 17).

Goxetan oyaren epeltasunak eta aragiaren nagitasunak gorputza lotu egiten dabela esan lei; ba lelengo arpelkeria arin astindu ezkerro, arimea sendotu egiten da beste zirikaldi edo tentaziñoak azpiratuteko be, lelengo Jaungoikoari opatu yakon egitadeak poza emoten dau ta.

Bera (Domingo) yagiten zanean nagiagoak iratzartuten yoaten zan, bein, biritan eta iru bider be bai; baña beti eroapen edo kemen aundiagaz, biguntasuna ta maitetasuna agertzen ebazalarik. Gero ainbat lasterén arpegia garbitu, ta elexara bost lauren gitxiagotarako elduten zan, eguneko egikizunak Jaungoikoari opatu ta goxeko beste otoi edo ereguak egiteko.

Domingo'n ikas-lagunen (ikaskideen) artean batzuk guztiz onak ziran eta gogokoak, eta beste batzuk, txarak izan ez arien, ez ain onak; oneik eleizkizun oneitan gitxiago nekatuteaeren aulki edo bankuen ganetan eskuak zituezala egoten ziran. Domingo bariz belauniko, ezeri eldu barik, geldi, itzaltasunean, eskuak eskapulariopean zituala. Gero gogozko otoitza edo goznarkuna euken, eta Domingo zur eta batasun osoan egoten zan, eta alboan beuken inor lo, kontuz yantzitik oratuta, iratzartuko eban.

Gosnarkun edo meditaziño ostean «Arauzko orduak» deritxen otoyak egiten ziran; oneitan be Domingo'k onberatasun sakona ta Jaungoiko-zaletasuna agertuten ebazan, berari egokiona banan-banan, argi ta geldunekaz esanda.

Seiretatik seiterdietara, gitxi gora-bera, me-

sea entzun eta Yauna-artu, egikizun oneitan be Domingo'n siñesmen bizi, ta oneraspen edo Yaunagazko zaletasunak biotza Jaungoikoagana yaso eragiten eban. Batzuetan Geure Jauna artu-ostean, altara aúrean bakañik geldituten zan, eta bere lagunak deitu egin bear izaten eutsoen: ¡maitaleak maiteagaz autu asko ta luzeak eukitea mirari ezta! Jauna gertasun ain aundiagaz artu ezkerro, eztago zetan esan be, ontasunean eta zeruko bidean auñerapen andiak egingo ebazala, Jesukristoren gorputza «autuen ogia ta gizkarbiak egiten dituana» da ta. (Zak. IX, 17).

Geuk be zeruko bidean zeinbat auñeratuko ete geunke, Jaun-artze bakotxean, uts edo oker bat gitxiago egiteko asmoa artu ta beteko ba-geunke, edo onbide bat lortu.

Arautegi edo eñreglamentuari yañaitu dayogun.

Seiterdietarik saspiretara barausten zan. Gero bakotxak bere lo-gelea (kuartua) atonduten eban. Zaspiretatik zortziretara ikastaldia. Zortziretatik bederatzieta ikasi zana erakusten eta irakasleen azalpen edo explikasiñoa entzuten. Bederatzieta amañetara bañiro ikastaldia. Amañetatik amaiketara ikasia agertu ta

irakasleari entzuten. Amaiketatik amabi lauren gitxiagotarte, eresi-irakurte, abesti ta musikea, yoikin eta guzti, pianua (buñaritza) be bai. Amabietatik ordu batetara bazkaria ta yostatu edo olgetea. Ordu batetik, ordu bietara bako-
txak gura ebana egiteko astia azke (libre); ba-
ña ixilik egon bear zan, baten bateri zer edo
-zer azalduteko edo izan ezik, berba egitea ga-
lazota egoan-da. Ordu bietatik iruretara ikas-
taldia. Iruretatik lauretara ikasia erakusteko
aroa. Gero Geure Jaunari ikustaldia, deuntza,
Guruzpide edo kalbarioak garizuman, yolaske-
ta edo olgetea, agurtza edo eñosarioa, bedera-
tziuñenak..... Saspiretatik zortziretara bakar-
-ikastaldi-osteko erakusleagazko ikastaldia. Ge-
ro afaria, «Benedicta» esan, examiña edo gogo-
-azterketa egin, Andra-Maria'ren letani añen-
tzak esan... eta bederatziak inguruan lotara.

Domingo'k arautegi edo eñeglamantu au-
zeatz betetan eban, Jaungoikoak iminia baili-
tzan, nagusiai buruz Jesus'ek iñoan ba: «Zueri
entzuten dautzuenak neuri entzuten daust, zuok
aintzakotzat artzen etzaituenak, neu be enau
aintzakotzat artzen» (Luk. X, 16), eta Domin-
gok Jaungoikuaren berbetan siñesmen bizi ta
sendoa eukan.

Lekaidegei edo prailegei egoan iru urteetan Andra Maria Jaungoikoaren Amagan eta Sakramentu done-doneagan eukan oneraspen edo deboziñoa asko geitu eban. Bein mesa erdiko berbak abadeak esan ezker, *ostian* benebenetan eta egi-egiaz Geure Jauna egoala sutu siñestuten ebala agiri iragarten eban; ba *ostia deuna* (Geure Jauna) agirian iminten zanean, Domingo begiak zabal - zabalik eta adi - adi begira egoten yakon, belauniko ta ezeri oratu barik eta aulki ganean eskuak imini barik, itzaltasun eta batutasunean. Iñoz, onango eleizkizunetan botaten eban maitetasunezko gaia, beste batzuk ezagututeko gañekoa izaten zan. «Bederatziurén baten,—Agustin aba'k diño—Domingo'n gorputzak, neuriz-gañetiko berotasuna botaten ebala, asmau neban, eta berotasun onek gogozko poza ezarten eustan. Neure eretxiz, berezkoa etzan a beroa. Olango eratako berotasunik iñoz be eztot artu-ta».

Eukaristi (Geure Jauna)'gan eukan maitetasuna berotu ta indartsuagotu'eko, Alfonso Maria Ligorio deunaren «Jesu-kisto ganako maitasun bidea» deritxon liburu edeñak lagundu eutsan.

Andra-Maria'ri be oneraspen aundia eutsan,

txiki-txikitatik amak erakutsita; oneraspen oretan sakonduteko asko lagunduko eutson, lenizentau dogun deunak idatziko: «Mariaren gorakizunak». Egunero ordu batetatik ordu bietara, Andra - Mariari «Arendi Txikia» esaten eutsan, eta Karmengo eskapularioai eta... egokietan ereguak egin. Ordu atan garbitokiko arimen alde be arendia egiten eban.

Domingo'k Jaungoikoari eutsan maitetasuna, lagun urkoari eutsanean be agertuten zan. Juan apostolu deunak esaten eban ba: «Begi aurrean daukan anaya maitatuten ez dabenak, ezelan maitatuko dau ikusten ez daben Jaungoikoa? Jaungoikoagandik agindu au daukagu, Jaungoikoa maite dabenak bere anaya be maitatu dayala» (1.^a Epis. IV. 20, 21). Onetzaz Jesus'ek berak erakutsi ebana be ondo ekian: «Biotz-biotzez, gogo osoz eta adimen guztiaz zeure Jaungoikoa maitatuko dozu: Au da agindurik aundiena ta lenengoa. Bigarena (agindua) onen antzekoa da: lagun urkoa zeure burua lez maitatuko dozu» (Matth. XXII, 37-39).

Lagun urkoari eutson maitetasuna, garbitokiko arimen alde sari otoi eginda ta bere ikas-lagunai ondo gura izanda iragarten eban. Onetarikoan bat matematika nai osteango gaien

azalpen eske yoaten ba'yakon, poz-pozik egingo eutson. Guzti-guztiai ondo gure ta laztanta-sunez berba egiten eutsen: eta kokolotxuago ziranai be, ba'arik ezeutsen egingo, ta aurrean erabili be ez, adara yoten.

Ikastetxean erdera gitxi ekien euskaldun batzuk egozan eta ikasgaiak erderaz eukiezan-da, erderaz yakitea bea'ekoa eben. Au dala-ta euskaldunak erdera ikasi eyen elestuna eukien, euskeraz egiten ebanari emoteko, ta onan azkenengoz elastunagaz geldituten zanak, besteari oñetan mun egitea eukan, iñoz ba'iz bazkaitorduan ardao barik gelditutea.

Euren artean on-on gisajo bat egoan eta oneri azkenengoz elastuna eukanak euskeraz zer-edo-zer itanduko eutson eta erantzunean elastuna ezarten eutson. Orduan Domingo'k, tamalak artuta, eskatuko eutson elastuna ta e'ruduna bailitzan zigorkadea (kastigua) beteko eban. Au egiten ebanean, Jesukristori antzartuten eutsan, e'rudunen ordeez, e'rubageak ordainduta (Phil. II, 7 I Petri, III, 18.—Rom. V. 8-3).

Yolasetan beste lagunuen antzera ibiltzen zan; ba'ie zantzorik atera ta zarata asko egin barik: eta eskuekaz be zi'rika iñori ezeutsan ekingo.

Ibiltaldietan (paseoetan) eskuak eskapulariopean ebazala ta begikunea alde guztietara bota barik yoango zan, baña buru makurtuta be ez, kokololapiko egiten.

Yantokian, yan bear ebana geldiroegi ta ariñegi barik yango eban, besteen mosuetara begitu barik, eta irakurten zanari adi. (Lekaidetxe edo konbentuetan eta abadetegietan yatorduan batek irakurri egiten dau besteak yaten dagozan artean.)

Aldi ta leku guztietan Jaungoikoa gogoan eukiten eban eta egitada guztiak Beragana zuzenduten zituan, Paul deunak irakasten ebana egiñik: «Naiz yaten dozuela naiz edaten dozuela, naiz edozer egiten dozuela, guztia Jaungoikoaren aintzarako egin». (Kor. X, 31).

Domingo ikasle urtena be ba'zan. Ikastaldietan ukondoari sakatu ta ekiten mutila zan eta, berez be buru argikoa zan da, ikaskizunetan auñerakuntza aundiak egin zituan.

Algorta'ko ikastetxean bere bizikerea guztiak ontzat eukien. Aratiatarak aroak eta okeak zirala iñok esaten ba'eban, oneik, Domingo izentauegaz, ixilduten eben.

Algorta'n egoan arteko irakasleak ziran: Eroslearen Jose, Jesus'en Kosme, Migel deuna-

ren Pernando ta Nazaretar Jesu'en Pio. Eroslea-
ren Jose Aba'k beste askoen artean diño: «Ikas-
tetxean oitura zan-da, astero konfesau edo autor-
tu ta egunean-egunean Jaunartuten eban.

Yantokian egin al zeikezan buru-ukatzeko edo
mortifikaziñoak be egiten zituan: oñai mun egin
eta luñean yan. Batzuetan berari egokion yane-
tik zerbaist itxi be egiten eban.

BOSTGAÑEN ATZALBURUA

Atsekabeak eta laztasunak.

ALGORTA'n egoanean bere baruan atsekabe aundiak igaro zituala, Domingo'k gexorik txarto egoanean, Igokundearen Antonio Aba'ri esan eutsan, ara: «Algorta'n sartuta urte bat gañenean gogo iltasuna asmau neban, egikizunetan atsegiñik eneban artuten, bakañik iluntasuna, lañoa, ezbaidak, artegatasuna, bildura, nekea, minberatasuna, laritasuna, atsekabea. Neure baruan deadar bat asmetan neban: egiten nebana bear neban lez, ondo, enebala egiten. Eta nik neugan uts eta akatzak aurkituten nituan.


Neure arimea ain ezeuki aundian eta zoritxañean ikusirik, infernurakotzat neukan neure buña, ta onan nire atsekabe ta lañi aldia sakondu egiten ziran. Era erukañi onetan, nik neure gorputza zigortu, Andra-Maria'ri eregu egin eta zerura deadar bakañik egiten neban. Jaun-

goikuaren erukitasun-ateak nitzat itxita egozala uste neban; eta nire otoi erukañiak entzuteko inor ezegoala. Baina neure asmu onetan yarañtuten neban, buru-ukatze edo mortifikaziñoak egin, eta egikizunak alik eta ondoen betetan alegindu. Azkenez, Andra-Maria bitarteko zala, Jaungoikoa erukitu zan nigaz. Lekaidekunde edo profesa egin nebanean laztasunok kendu yatazan eta bake yoria artu neban. Ordurik ona artetsu, baretasunean nago beti; arimako bakea ta atsedena kendu barik daukadaz».

Auxe da gitxi gora-bera Domingo'k Igokundearen Antonio Aba'ri erantzun eutsona. Algor-ta'n bere ikaskideak artega asmetan eben eta buru-ukatze gogoñak egiten; ezta mirari artega egotea, aurkituten zan estu aldietan.


Egia da benetan Urtzizkolan (mistikan) esaten dana, Jaungoikoagaz bat egiteko, Jaungoikoaren guraria guk beti gura izateko, ta ariman bake iraunkoña euki orduko, goñiak ikusiaz, gorputz eta arima garbitu egin bear dirala.

Gizona yatoñizko pekatu edo obenagaz yayoten da, ta oben onek gorputzari luñeko atsegiñetarako lera edo leia indartsua ezarten dautso; bere griñe txarñak gaiztokerietara eroan gura dabe, arimako indarñak urituaz ganera,





[Iñazio, Jaungoikoaren otseñaren anaya, Algorta ko
ikastetxean lekaidetzarako



Jaungoikoaren otseña egon zan Algorta'ko lekaidetxea



Algorta'ko Irukoiztañen ikastetxea

adimena ilundu ta naimena (borondatea) indar-
getu egin dautso. Era onetan aragi aldeko bizi-
tzeak poztu ta alaitu egiten dau, ta arimako gau-
zak gatx eta zail egiten yakoz. Onan ba gogoa
ia auzpaz dago ta yagiteko Jaungoikoaren la-
guntasuna bear dau, ta Jaunak laguntasuna eska-
tuten dautsonari emon egiten dautso. Au da, ona
ta donea (santu) izateko bidea. Baña oindiño
askosaz geyago bear da Jaungoikoaren guraria
gureagaz bat egiteko; alde bitan sartu geinkez:
griñak azpiratuteko geure aldetik al geinkezan-
ak egiten ekin; geure buruaren yabe izan gaite-
zan, otoi egin; buru-ukatzeko edo laztasunak gu-
rariz artu; gorputza nekalduten alegindu,
beste eginkizun onak bertan bera itxi barik:
gizona Jaungoikoaganatuteko alde bata esan
doguna da, gizonaren ekitea. Beste aldea da,
mundu onetan etorten yakozan gexo bearezak,
laztasunak, esamesak, irañak, baltzak kemenez
artzea, ta geyen-geyen, au be bigařen aldean
dago, Jaungoikoak emoten daben argi goiti-
koan; gizona ondatuta dagoala esan leienean,
uts eta akats agirienak kendu ditualako, Jau-
nak argi au emoten dautsie, ta gela baten
eguzkiaren izpi batzuk sartuten direanean,
ainbeste bider, len ikusten etziranak ikusten

diran lez, bardin arimeari be argi miragañi ori bitarteko dala uts asko agertuten yakoz, eta ainbeste loikeri ta akats ikusi orduan, ia zerurako itxaropena galduta lez geldituten da; egiz Job deunaren berbak esan leiz aro atan: *miseremini mei, miseremini mei, saltem vos amici mei, quia manus Dei tetigit me.* (19,21) «Érukitu zaiteze, erukitu zaiteze, gitxiendi zuok nire adizkideok, Jaungoikoak eskua ezañi daust-eta». Domingo'k oneik atsekabe ta laztasunok iru urtean igaro zituan eta oneikaz arimea garbituta, gero bake aundian bizi zan.

Neke aundia emoten dau mokilausteak, udan ixerdi bitzetan ibili bear danean; eta itxa-soan estu egoten da asaratuta dagoanean: baña estuago egoten da arimea, Domingok euki eban erara euki ezkerro, gorputzeko atsekabeak baño, arimakoak zorotzagoak dirialako.

SEIGAREN ATZALBURUA

Prailegei (lekaidegei) urte bete.—Lekaidekunde (profesa) eginda beste bete.

MILLA ta bederatzireun eta amasaspigaren urtean Lotazilan (abenduan) bederatzian, Algorta'tik Domingo'k urten eban, egun atan «Bien-Aparecida»ko lekaidegeietxera (convento-noviciado) elduteko *Marron, Santander'* en, eta izentau dan ilean amaikagarenean, Algorta'ko Nagusi Jesus'en Biotz deunaren Gregorio Aba'k yantzia (irukoiztaŕen yantzia) emon eutsan, eta urte bat garenetik lasterean lotazila amalauan lekaidekundera (profesa) Sortze garbiaren Tomas lekaidetxe atako nagusiaren aur-ean egin eban.

Urte bi oneitan Domingo'k egin eban bizi-tzearen baŕi, Jesus'en Jose eta Sortze garbiaren Agustin Aba'k emoten dabe; eurek diñoenetik artuta emen ipiñiko dot.

«Bere bizipideko lege ta oiturak betetan ur-tenena zan, ez gara gomutetan iñoz bat zapaldu

ebanik. Soloan beaŕean zoliena ta geyen egiten ebana zan.

Buru-ukatze ta gurarizko laztasunak eroaten be mutil ona zan, Jesukristoren antz apur bat atsekabeetan eta nekeetan artu gura eban da: bazkaitorduan eta afaltorduan berari egokionetik zerbait yan barik isten eban, Irakasle Aba'k neurria imini bear izan eutson.

Oñean zauria eukan eta yaramonik be ez-eutson egiten, eta Jesus'en Plazido, Laguntzale Aba'k ikusi eutsonean osatuteko alegiñak egiñ-azo eutsozan. Agindua betetako beti gertu egoan.

Bein baten yagola anaideak, oyeko sareganen, ilazki (koltxoe) barik, lo egoala asmau eban, eta Irakasle Aba'ri bari emongo eutsola, geyago alan ikusten ba'eban esan eutsan eta auferantza alan lorik ez egitea erabagi eban.

Apaltasunagaitik ibilkundeetan lekurik agiri-rienak etzituan artuko. Berba gitxi egiten eban; baña gogoko (arimako) gauzetan asten zanean, adurá dariola eukiten zituan, eta biotzik otzenak be berotuta isten zituan».

Esameslariak eta arerioak leku guztietan izaten dira-ta, Domingo'k be, beukazan zearka begituten eutsoenak, oneik berba mingaririk

esaten ba'eutsoen, iribaŕe eginda, ixildu egiten zan.

Bere oneraspen agiri-agirienak Sakramentuan Jesus'i, ta Andra-Maria'ri eutsezan, oneitzaz zerbait geroago esango dot. Goxetan otoi edo eŕegu luzeak egiten eutsozan sakramentuan Jesus'eri, eta aŕastietan be bai. Aŕasti askotan txauneskiñoa (armonioa) yo, ta «De Angelis» mesea abestuten, bakaŕik egoten zan.

SASPIGAÑEN ATZALBURUA

**Domingo, Erroman.—Aita Santuaren «Gregorio-
tañena» ikastetxe nagusian.**

IRAKASLE aundiakaz ikasi dayen, lekaidetxee-
tatik (konbentuetatik) batzuk Erromara
bialduten dituez, Domingo'k yoango litzakela
iñoz iragañi eban, an arima-zuzentzañe argia-
goak idoroko zituala-ta. «Bien - Aparecida»-ra
Lorenzo aba lekaide-erkaba etoñi zanean, sen-
doen eta osasuntsuenak, burutsuen artetik, ar-
tuten ebilen, eta Domingo gexoperea izan añen
izentau eban. ¡Jaungoikoaren gauzak!

Lelengo bere eginkizunak artez eginda Di-
ma'n ikasbide ona emon eban, gero onbideen
usain gozoz Algorta'ko ikastetxea bete eban,
«Bien-Aparecida»n legeak eta oitura onak gor-
detan erakutsi eban, eta Jaungoikoaren guraria
zan oindiño leku geyagotan eginkizunakaz Do-
mingo'k argi egin eyen; eta onan, iñok uste
ezebala, nagusiak Erromara bialdu eben.

Eíroma kristiñau orokoñen burua dagoan uria da, siñesmendunentzat maitagaría, era askotako endak, eta izkune askotakoak bertara yoaten dira Pedro ta Paul deunen eílikiak (gorpuzkiak) gurtu-ta, semeen laztantasuna aita Santuari iragarten eta bere onesmena (bendeziñoa) artuten.

Domingo ba Eíroma'n Kirinal ondoan dagoan Karlos-deun-ikastetxe'rako izentau eben; eta mila ta bederatzireun eta emeretzi gañen urtean urilako ilean bere lagunakaz Eíromarantza urten eban, Bartzelona'tik Genoba'ra itxasoz yoan zan.

Onberatasun aundiaren ezaugarí ona emon eban, itsasontzian sartu orduko, beste bere lagunak Bartzelona'ko ikuskizunak ikusten ebizanean, belaunikotuta, elexan Geure Jauna gurtuten egoan-da.

Itxas ontzian doyazala gatz-bako donge bat Elexa Ama deunaren aurka susterbakokeriak esaten asi zan. Domingok arpegi iluna bakañik imiñi eutson, baña siñesgeak igarí eban aik berbak etxakozala atsegin eta esan eutsan:

—Nire gogo ta oldozkayakaz bat etzara uréan, eta nire berbakuneak poz aundirik ez dautzu ezarten.—Domingok eíme ta bildur barik erantzun eutson:—Egia da, zuk diñozu-

zan kirtenkeriak gogoko etxatazana, egitedun kristiñau naz-da, ta erlejiñoak irakasten dauskuna egia dala bai dakit-eta. (Domingo'k eta lagunak, nagusien baimenagaz praile yantzi barik ibilkundea egiten eben). Yazokun onek «Eklesiastes»ek diñoana baten geyagotan egiztuten dau: *Quia per tristitiam vultus corrigitur animus delinquentis.* (7, 4) «Arpegi ilunagaz eruduna arteztu leiela. ¡Ago zabalak ixilduteko ikaskizun edeña!

Ama Nekatsuaren Gabriel Aba'k dirausku itxas - ontzian yoyazanetaiko bat alemana ta Elexearen arerioa zala, ta bein bategaitik, beste bein beste bategaitik txarto esaten ebilela, ta ikusirik Domingo'k eresuak (otoyak) egiten eukan oneraspena ta bere begirunea esan eba-la: «¡Ori bai, izango dala praile ona!»

Mila ta bederatzireun eta emeretziko urtean Urila'n amaseian beste lau lagunegaz, Domingo Erómara eldu zan.

Nagusiak, Erómaratu ziran ikaslak Gregoriotaren ikastetxean izen lerokadan imintea gura eban, urte atako ikastaroan asi zeitezan (Azilan asten zan).

«Gregoriotarena» deritxon ikastetxe nagusia antxiñatikua da, ta ospetsua; mila ikasle ba-

ño geyago europako lateri (eñeñu) geyenetatik eta Ameriketako erepublika edo erkalderi askotatik yoaten dirialako. Ikaslerik geyenak abadetzarako dira. Baña eundaka dagoz prailetzarakoak be. Ikastetxe onetan Domingo'k Jesu-kristo'k ikaslai emoniko agindua ondo bete eban, onberatasun eta ikaskizunetan: «Gizonen aurrean argi egizue, onan zeuen egitakak ikusita, zeruetan dagoan Aitari aintza emon daioen» (Matth. 5, 16).

Mata'ko Juan deunaren Silbio Aba'k, Domingo'gaz batera Erroman zazpi urte ikasi zituanak, diño: «Egunero irakastolan sartu ordurako, Geure Jauna'ri ikustalditxo egiten yoaten zan, ikastetxeko elexatxora; onan Jaungoikoari biotz-agurezko gurtuerea lelengo emoten eutsan, eta era batera bere ikaskideakaz alperetako berbetarik egiteko bidea kenduten eban. Gero irakastolan sartzen zan, txera biguna egin bere ordeakoai (lekaidekideai), ta irakaslea etori arte itxarroteko yari egiten zan.

Irakastolara beti etoriko zan ordurako. Baten etzan eldu, Karlos deunaren ikastetxean eleizkizun luzea euki ebelako; ta Ikastetxe nagusiko legeak aginduten daben lez, barura sartu barik ateetan gelditu beari izan eban. Eta

ateetatik, zur egonda, irakasleak esan eban guztia entzun eban; ba, gero, bañuan egon ziran ikaskide irukoitztañai zeatz esan eutsezan irakaslearen azalpenak.

Irakastaldietan adi-adi egoten zan eta irakasleak esaten ebanetik, oñak artuten zituan, ikasgaya luzatu edo laburtuteko. Iberkera izkunean irakastaldian be oñak artuten zitualako, esan neuntson, ia zetarako dituan, eta erantzun eustan: «Neure egin beñak beteteañen eta nire gogoa leku askotatik zear yantzan ibili ez daiten». Oñak argi ta garbi idazten zituan eta bere ikaskideentzat be mesedegañi izaten ziran, eskurik-esku ibiltan ziran-da. Onan esan eukian, ba, idazteunak diñona: «Leuntasunez yakintza ikasi neban, eta leya barik irakasten dot, eta bere zindotasuna ez dot estalduten». (Sap. 7, 13).

Irakastolatik urten ostean axe garbia artzean yoaten ziran ikaskideak minutu bi inguruan, baña bera oñak atonduten eta ikasia ikusten egongo zan. Eñiketa edo politikako gauzarik ezeban iñoiz aitatu ezta bere aberietzaz be. Españako ikastetxean begozan bere enda ta izkune kuak be, baña alpeñezko bañiketan etzan ibiliko eurekaz, bigun txera aundia egin bai baña».

¡Eleiz gizonoi emoten dauskun ikasbidearen edera! Aberirik ez aitatu, ez bata ta ez bestea, ez zuri ez goñi: aberia goralgaria da, baña beratzaz eretxi bardiñak eztagozanean, ixildu eleizkizunetan eta yaikunetan.

Silbio aba'k diñoanari yañaitu dayogun: «Larunbat edo sapatuetan ikasia bañistetea, eta ilean bein ikaslak eukiten ebezan ezta-baideetan berari egokion atzalkizuna ondo egingo eban, eta zeatz birindu be arerioen oztezkiak (objectiones). Guztiak miraritu-ta itxi añen, bere apaltasunak ezeukan galtzerik». Esan danagaz naikoa emonda aituten, jauparitegi ta ikastetxetxiki ta nagusietan yañaipidetzat artu leikeala, bai ikasteetan eta bai onberatasunean, be.

Eñroman egon zan zazpi urte atan ara ikasibana:

YAKINTZA EDO FILOSOFIA

Lelengo urtea (1919-20)

Ikasgayak: Iradibidea (Logica) eta orizti orokora (Metafisica general)—Irakasle Paul Geny. J. L. (1).

(1) 1915'ko urtean Urñila'n 12'an il eben Eñroman.

Iniztia (matematikak)—Aindizti (algebra)
—Daneurtizti (geometria) ta Islertxokoiesagiz-
tia (trigonometria)—Irakasle: Pio Scatizzi J. L.

Bigarren urtea (1920-21)

Ludiztia (kosmologia), irakasle Endika
Schaaf J. L.

Yakintza-edestia, irakasle Perderika Klinke,
J. L.

Daniztia (física), kimika ta meiztia (mi-
neralogia), irakasle, Joseba Gianfranceschi
J. L.

Irugarren urtea (1921-22)

Jauriztia (Teodicea), irakasle Paul Geny
J. L.

Oniztia (Etica), irakasle, Laurentzi Giam-
musso J. L.

Yakintza-edestia, irakasle Perderika Klinke
J. L.

Ederiti-donea (arte sagrado), irakasle, Karla
Briccarelli J. L.

Ortizitia (astronomia) ta lutiztia, irakasle,
Prantzizko Magri J. L.

URTZIZTIA

Lelengo urtea (1922-23)

Elexiztia (De Ecclesia)—Ermano Van-Laah.
J. L.

De Vera-Religione, Silbio Fabbri. J. L.

Zileiztia (moralis) Arturo Vermeersch. J. L.

Idazteunetara sañerea (introductio ad SS.
Scrip.) Silbio Boradini, J. L.

Elex-edestia Jose Dominici J. L.

Kristiñau zarkiniztia (arkeologia) Felix Gros-
si Gondi, J. L.

Iberkera Jose Neyrand. J. L.

Bigarren urtea (1923-24)

Urtziztia (De Verbo incarnato) Domingo
Lazzarini J. L.

Urtziztia (De Gratia et Virtutibus) Nikolas
Monako J. L.

Zileiztia, Arturo Vermeersch J. L.

Institutiones Juris Canonici. Felix Kapello.
J. L.

Siñeskai-edestia, Juan Groot. J. L.

Irugarren urtea (1924-25).

De Sacramentis I pars--Domingo Lazzarini, J. L.

De Sacramentis II pars—Gabriel Huerta.
J. L.

Idazteuneko gerkera, Silbio Rosadini J. L.
Siñeskai edestia, Juan Groot J. L.

Laugarren urtea (1925-26).

De Deo Trino, Domingo Lazzarini.
De Deo Uno et Novissimis, Enrike Lennerz.
J. L.

De Deo Ereante et Elevante, Uarte' tar
Gabriel J. L.

Idazteunak (Itun zaia), Arnaldo Parenti.

Idazteuna (Itun baia), Silvio Rodadini.

Donbide ta Urtzikola, Jose Guibert.

Ikaskai asko benetan eukan Domingo'k, ba-
ña ondo ikasi zituan, eta alan iragaia be egin
eban, ba yakintzan Irakasle (Doktor) egin zan
1922'ko urtean, eta Urtziztian be bai (1926).

Mile ta bederatzireun eta ogeta seien Bagi-
laren zortzigañenean gexotu zan eta beogeta
zortzi egun oyan egin aien, artezketara yoan
zan, Nagusiaren esana betetaien eta Urtziztian
Doctor cum laude (goraltzeagaz) atara eban.
Kokolua etzan ba.

ZORTZIGAREN ATZALBURUA

Ikastarteetan (Bakaziñoetan)

ERROMA'KO Gregoriotarren ikastetxe nagusi-an asko ikasi bear da-ta, ikaslea indar-getu egiten da; bañiro sendotuteko ta gexoak yo eztaizen iru ilabeteko ikastarte edo opoñal-diak emoten yakez ikasleai, ta aro ori igaroten albo-eñietara urteten dabe: Eñroma, ba, osasun-erako txar-txaña izan ez añen, udan beroa da, ta ezoa ta nekñra be bai.

Domingo'k urtetan eban udaldian ile bate-rako gitxi gora-bera; iru urtetan *Rocca di Pa-pa* deritxon lekaidetxera yoan zan (1921, 22, 26) eta baten Gorga'ra.

Opoñ-aldi oneitan bere eginkizunak geroa-go ta obeto egiten alegindu zan eta zeresanik ezeban imiñi. Lekaide edo prailea zala gogoan eukita, onbidean auñerantza beti yoyan. Emen yazopen batzuk bakañik esango doguz, lar lu-zetu ez egitearren.


Bein baten Teresa Deunaren Anjel Aba'ri, laguntzat ikasle bi artuta (Eliodoro ta Domingo) ibilkunde andia egitea gogoratu yakon «*Rocca di Papa*»tik *Tuskulo* urira, bata beste-agandik urin dagoz, eta Domingo'k «Arau-or-duak» esateko amaiketarako etorri gura eban-da, Anjel Aba'k asun, sasi, ta iñara - arte-tik zear eroan zituan, eta Domingo'n oñetakoak sorua bakarik euken eta zetan esan be eztago asunak egingo eutsesan azkurak, eta otak urutuak... Anjel Aba'k esan eutson: «Zu oretatik ezin yagon al izateak tamal aundia emoten daust». Domingo'k erantzun eutsan: «Ezebe ezta, Jesu-Kristo'k bere Nekaldi gogorean igarro ebanagaz bardindu ezker».

«Beste baten,—Konstantino Aba'k diñosku,—Kabo deritxon mendi tontoñera igotea ebatzi gendun. Egarriak ito bear ginduzan. Orduan Domingo'k iribañeka esan eban: «*Nekatu beañean aurkituten gara-ta, Jaungoikoaren maitetasu-nagaitik neke oneitan eroapena euki daigun*».


Domingo'k beañizana egoanean lagunduten eutsan bein maizañari, bein yanarizañari, baita sukaldariari (kozineruari) ta ardaugelazañeri be; onan erakusten eban, gauza guztietarako gaitasuna eukala.



«Bien-Aparecida»ko lekaidegei-etxea



«Roca di Papa»ko lekaidetxea



Biteriño. S. Miñan'en basatxaunoa

Ellexea apainduteko aginduten eutsoenean, poztuten zan geyen. Dagonilako (agustuko) Andra-Mari'z Ama Birjiñaren irudia apainduten da guztiz ondo, uñegoñizko burestunegaz-da. (Burestunori Batikanoko yaupaldiak opaldu eutsan 1872). Lapurak, gauza ederrik ikusi ezker, begia zur eta eskuak zoli erabilten dabez eta irudi oneri burestuna kentzen bein baño geyagotan alegindu ziran. Au dala-ta lekaidetxeko nagusia lorik egin barik egoten zan, yai auruko gabea. Mila ta bederatzireun eta ogeta bigarren-ean, ikasle asko egozan - da, nagusiak esan eutsen mesedez yagoten eurak egon eitezela, ta Mata'ko Juan Deuna'ren Silbio, Eliodoro aba ta Domingo izentau ebazan, eta pozik egozan bakotxak berari egokiona itxarrik egiteko. zotzak eginda lenengo Silbio Ana'ri urten eutsen yagola egitea; baña egun guztian beaŕean ibilita nekatuta egoan-da, Domingo'k erukituta lelengo berak egingo ebala esan eutsen, eta beste biek lo etxun ziran; gaberdian itxartu ziran eta Domingo Ama Birjiña'ren aurean belauniko ikusi eben, itandu eutsoen ia ordeztuten yariko zirian: *ez; eskerrik asko, ordua ezta oindiño*, erantzun eutsen. Lo gozoan yaraitu eben eta irurak inguruan itxartu ziran eta Domingo be-

launiko otoi egiten egoala ikusi eben, eta diñotsoe: «Nekatuta egongo zara, atsedeen eta loen beařizanean». —Eta dirautse: «Nekatuta enago, ekin lo». Eta lauretarte onantxe egin eben, lauretan ba yentea autortuten etořen eta autorleak etortean, zaintzalerik ezan bear. Domingo gau osoan egon zan zaintzale.

Gorga'n udea emoten ebenean, ikasleak «Lepinos» deritxon mendietan ibiltzen ziran saři. Eřitik apur bat urtenda, bakartasuna bakařik ikusten da, atxa ta mendi tontořa, buřutz aundiak eta aři ikaragařiak bakařik begiztetan dira, luř latza agiri da, ta bedařik esatekorik eztago, aretx zařak eta arteak bai ugari. Guztiak Jaungoikoaren itzaltasuna gogora ekarten dau, eta Domingo'n biotza Jaungoikoa goralduteko poz-tuten zan eta onan elez-abestien abespidea no-zean bein emoten eban. Maitetasun bereziagoz *Salve Regina* (Agur Eřegiņa) abestuten eban. Onan gorputza ta arimea alaitu ta sendotuten ebezan.

1924'ko Iraila'n 22'an, gurasoai idatzi eutsen:

«Dagoniła'ko (agustuko) iłe osoa mendiko lekaidetxean emon dogu, ango inguruko mendi ta atxak zapaldu doguz, Arteun-atxe'n antze-

koak dira. ¡Baseñietako mendietan ibilteak bai emoten dau poza!

Andra Mariaren basotxono edo ermitarik aurkituten ba'eban, iru «Agur Maria» esan bari ezeban itxiko; zañenari egokion ori izan beta, Domingo izaten zan oñetan lelengo asten zana. Bere lagunak diñoe onango eginkizun samur eta maitegañietan, Domingo'ri batzuetan arpegia goñitu egiten yakola. Emen ikusten dogu opor-aldietan be eñeguari ezeutsola isten, eta Jaungoikoa benetan maitatu gura dabenak yañaitu bear daben bidea erakusten dau.

BEDERATZIGAREN ATZALBURUA

Lekaidekunde nagusia.—Mesa baía.

JAUNGOIKOARI geyago lotuteko guzti-guztia izkindu gura zan, lekaidekunde (profesa) nagusia, eleiz-legeak aginduten daben eran, eginda. Bere gurariari Nagusiak bayezkoa emonda, 1922'ko Azila'ren 23'an Nazaret'ar Jesus'en egunean lekaidekunde nagusia, Igokundearen Antonino Aba'n aúean, egin eban, goxeko amaiketan; onan mesa baía emoteko bidea gertetan yakon; baña oindiño urtzizti (teologi) donean ikastaro bi baño etzituan egin eta eleiz-legeak lau eskatuten dituez. Urte bete lenago yauparitu (ordenduteko) eskubidea lortu zan. Burmoztu ta ordena txikiak: atezain, txonbiraulari, irakurle, ta yaupatsein egin ostean, *Palica* Gotzain agurgariak yaupaltzeñordetu eban (epistolaz ordendu) 1925'ko Epaila (Martian) 9'an. Urte atan eta ile atan 28'an yaupaltseindu (ebanjelioz ordendu) zan. Eta Dagonila'n (agus-

tuan) 9'an, Ponpili Basilio yanzkordun (karde-
nal) argi - argiak yaupaldu eban (mesaz or-
dendu).

Mesa baía, Eroma'n Dagonilako Andra Ma-
ri-z emon eban, Sakramentu deun-deunaren Mi-
kaela zorundunaren monja (lekaime) gurtzaileen
elexan, Geure Jauna agirian zala. Mesa baía-
tzaz berak idazkiz (kartaz) iragañi ebana bakañ-
ik esango dot. Idazki (karta) bat, ixeko Zubero'
tar Justa'ri zuzendua da; ara:

B. S. SS. T.=Irutasun Deun-deuna onetsia
izan bedi. Eroma'tik 1925'gañeneko, Dagonila'n
17'an.

»Ixeke maite maitea: Geure arimetan Jaun-
koaren poza ta bakea bego... Yaupari edo aba-
de eginda goi-goitiko nausitasuna artu doda-
nean, biotz-biotzetik eskeñak emoten dautzudaz,
Jaungoikoak izentau eustan bidean yañaitu dai-
dan, zuk egin dozuzan alegiñakaitik.

»Boto edo ezkontza doneakaz estuta, nau-
sitasun onetara igonda, bilduñ bigun artean, po-
zez eta zorionez beterik, Jaungoikoari eskeñak
emoten daragooit, lelengo munduko arazoetatik
atera-ta, leku eskutuan imiñi nauelako lekaide,
eta betikoñ yaupari dan Kristo'n ordeazko egin
nauelako, yauparien eskubideak neuri be emon-

da: bigarren zeuri, atxinagorik neuk egiñeko asmoak betetako eragozpenak kentzean ain alegin aundiak egin dozuzalako.

»Eztakizu ondo zuk, ixeko laztana, lekaide ta yaupariaren biotzak euki leyen esker ona, berari Espiritu-Santuak imini eutsozan naiak betetan lagundu dautsoenakan.

»Ba'dakizu, lekaide naz-da, eztaukedala ezer, eta lauziriko bat be ezin neyela euki, ta mundu onetako ondasunekaz ezingo dødala ordaindu; baña Jaunari eskatuko dautsot, ogi anzpean opaldu daidanean, Jesukristo ba, eskuak beterik, bea' doguna emon gurarik dago, ta eskatu dayogula diñausku.

»Jaungoikoaren eta gizonen bitarteko egin naz-da, egikizun au guztien alde betetan aleginduko naz; baña geyago neuk artu-emon ugariego daukodan lagunen alde; oneik gurasoak, anayak eta senideak dira. ¡Zorionekuak, euren artean yauparia otoi egiteko dauken, etxeko ta senideak!

«Geyago barik, Jaungoikoak onetsi zai-zala.

Jesus eta Mariagan zaletasun aundia dautzun eta biotzez maite zaituzen loba.

«SAKRAMENTU DONE-DONEAREN DOMINGO A.»

Beste idazki bat gurasoi bialdua, auxe:

B. S. SS. T.

Eroma'tik 1925'gañen urtean Dagonila'n 20'an.

»Guraso laztan - laztanak: Irutasun deuna euron biotzetan bego. Idazkortz edo plumea poz-pozik artzean dot, zorioneko izpar au bialduteko: yauparitu nazela, neure arimeak daukan poz eta alaitasunetik apur bat eurok be artu daien... Dagonila'n 9'an yauparitu giñean eta 15'an ospe aundiagaz mesa baña abestu neban, etxekoen eta senitarteen onerako eskinduta.

»¡Ene gurasoak! nire arimea eragotsita daukan poztasunen-poztasuna zeuok asmetea gura neuke, lekaide eskintzak egin dodazalako ta yaupalgo nausitasun aundia artu dodalako.

»¡Onetsia izan bedi Irutasun Deun - deuna, munduko ariskuetatik atera ta lekaidetxean, leku eskutuan imini nauelako!

»Eskeñak, guraso maiteak, eurok asko nekatuta, Jaungoikoaren deieri yaraituten itxi eustielako. Etxetik urtetorduan neke goña igaro beañ eben. Goitu eben guztia ta itxi eustien yoaten, Jaunak deituten eustan lekura. ¡Orain poz-pozik eta zorionez beterik gagoz eurok eta ni, eurok etxekoen artean yauparia daukie-

lako; ni orma deun onein baruan betiko yaupari dan Jesukristoren ordeazko eginda nagoalako. ¡Ene gurasoak! Eztakie zelango esker-ona dauken semeak, lekaide ta yaupari egiten lagundu eutsoen gurasoakaz. Eta Jaungoikoaren deiari semeak yafaitu daioen galazo dautsen gurasoak bariz, dongetsi egiten dituez, euren buruak atsekabez beterik ikusita.

»Ni zorionekoa izan naz, galazo barik lekaide egin nadin alegin egin dabelako.

»Beti bardin ein beye ¡guraso maiteak! Neba-añebaen batek praile (lekaide) edo monja (lekaime) sartu gura ba'dau, adoretu ta lagundu, bere gurariak bete daizan, onan seme maitale ta eskartsuak euko dabez-ta.

»Eta bardin diñotsiet anayeri be arkuntza atan dagozanean.

»Ni Jaungoikoaren eta gizonen bitarteko egin naz. Au dala-ta, etxeko gustien alde eskatuko dautsot Yaunari mesa (jaupa) emon daidanean. Eta nire otoyak eragikoñak izan daitezcan, Jaungoikoaren grazian eta adizkidetasunean egon gaitezcan, deabruari pekatu astunagaz geure arimetan sartzean itxi ez-da.

»¡Zorionekoak bai, zorionekoak mile bider, euren alde otoi egiteko yauparia dauken etxe-

koak! ¡Zorionekoak zartzaroan eta eriotzea ur ikusi daienean: *nire alde yauneskintzak egite-teko seme yauparia daukat*, esan leyen gura-soak! ¡Aik euren arimetan asmauko daben atse-giña bai atsegiña!

»Jaungoiko geure Jaunak onetsi daizala, ta bere grazi donean yagon bediz.

»Jesus eta Mariagan gure ta eskañon-oneko izan da laztan dituan

«SAKRAMENTU DONE-DONEAREN DOMINGO A.»

Amaitu daigun atzalburua, berak Elexako irakasleakandik yaupalgotzaz artutako oñakaz.

«Yauparientzat deuntasuna aginduta dago» (Tomas deuna supp. q. 35 a I).

«Lotsagaría da bizitz obeagaitik eñi-gizonen artetik alde egin-dabena, bere mundutar berbe-teagaz edo autuekaz eñi-gizon biurtutea» (Pedro Damiano deunak, *De Sacerdotibus*)

«Lotsatu bediz, lotsatu yaupariak, eurek baño eñigizon doneagoak aurkitzen ba'dabez» (Blesense Pedro).

«Yauparia diñoanak, guztiz Jaungoikozkoa dan gizona iragarten dau». (Anbrosio deunak: *De dignitate Sacerdotis C. II*).

«Dongea ondutea, zeru ta luñak egitea

baño aundiagoa da». (Agustin deunak).

«Yaupariak bizitza orbanbagea egin bear dau; begituten dautsien guztiak, yaraigaría ikusi daien». (Krisost. deunak).

«Yaupariak edo besteak baño obeak, edo guztien iñakagañi dira». (Bernardo deunak).

Yaupariak Jaungoikoalangotzat esten dira; yauparia ikusita Yauna gurtuteko eran». (Ambrosio deunak).

«Adizkidetasun arloa, Jaungoikoaren gurari eta ezguriagaz batean egotean dago». (Jeronimo deunak. Demetr).

«Adizkidea maitatu, eta aurean egotea gura ez, iñoz entzun ez dana da». (Kasiodoro).

AMARGAREN ATZALBURUA

**Irutasun Done-doneari oneraspen edo
zaletasuna.**

ISAIAS igarleak Jaungoiko irukoitz eta bakaña goi-aulkian esařita ikusi eban, sudunak (serapiñak) aurrean abestuten eukezala: «Deuna, Deuna, Deuna da gudarozteen (ejerzitzen) Jaun eta Jaungoikoa, lur osoa, berořen aintzaz beterik dago.» (1) (Is. 6, 2 3).

Irukoiztařen (trinitarioen) ikastetxe ta lekaidetxeetan guztiak gitxiendik iru bider esaten dabe izentau dan abestia, bakotxak bařiz bakañean geyagotan, irukoiztařen oneraspen berezia dalako; kristiñau guztiena be izan beař liteke, Irutasun deun-deuna gorengo ta aundien dan egi ulerkatxa olan gurtuten dalako. Irukoiztař guztien oneraspen berezia bada, euren artetik Domingo'na gitxien etzan. Egi ostendu onegan siñesmen sutsu ta sendoa eukan, eta bere ari-mako indar guztiagaz gurtu ta aintzalduten eban.

Idazki (karta) guztiak irukoiztaŕen ezagun-garri dan onegaz: «Onetsia izan bedi Irutasun deun-deuna», asten ebazan. Irukoiztaŕak ager-kai ta idazki guztiak onan asten dabez; baña Domingo'k olan eginda, eguna ta lekua imini ostean, Jaungoikozko egi ostendu ori gomuta-zoten eban, idazkiari asierea ta amaya onan emoten eutsala: «Irutasun done-donearen izen-ean, osasuna ta bakea». «Irutasun done-do-neak geure biotzetan agindu daiela».—«Iruta-sun deunaren bakea ta poza geure biotzetan be-go». «Irutasun guztiz zorionekoak onetsi gai-zala, ta goimaitasunagaz lotuta euki gaizala». «Irutasun deunaren anai eskaŕ onekoa dan...»

Irutasun done - doneagan oneraspen gitxi egoalako, Beratzaz gitxi idatzita egoalako ta eŕian Beragan egoan ezyakinkeriak tamal emo-ten eutson. Ezyakinkeri oŕetzaz Domingo'k berak esaten eban, bein baten lagun bat etoŕi yakola txaunolara (sakristiara) itaunka Karlos deunan elexan ze yai egiten eben. Irutasun do-ne-doneana erantzun eutsola. Aŕituta gelditu ei zan eta gero esan ei eutson: ¿Done ori nor da?—Domingo'k orduan: jori yakín ezeiteagaz aŕituta itxi nozu andrea! Irutasun deun-deuna erlejiñoaren ulerkatxik (misteriorik) gorena ta

aintzagaríena da. Egi Ulerkaitz órétan bakaí eta irukoitz dan Jaungoikoaren andientza gurtuten dogu.

Ikasteak egin eta yauparitu ondoren Domingo yauna oneraspen edeí au zabalduten alegindu zan, *El Santo Trisagio* deritxon aldizkingian (érebistan) idazki batzuk Irutasun done-doneatzaz idatzi ebazan. Bere gexoa ilgáíia zala asmau ebanean, atsekabe apuík artu eballa iñoan, Irutasun deunatzaz ainbat sakonen ikasi, Beronen oneraspena zabalduteko asmuagaz eta ezingo ebalako; baña atsekabe au asmauagaz batera Jaungoikoaren eskuetan yaíi zala, Bere gurari artez eta gurgaríagaz bat egin-da.

AMAIKAGAREN ATZALBURUA

Geure Jauna Eukaristia'n laztan-lasztan.—
Uskurtzera'n zaintzale.

EUKARISTIAN Geure Jaunari Domingo'k eutsan oneraspena aundia ta sakona zan; lekaidetzarako be onexegaitik artu eban; «Sakramentu done-donearen» abizena.

Maitetasun guztia Eukaristian eukala esan lei. Bertan siñesmen biziko argiagaz ikusi ta gurtuten eban, Aita Jaungoikoa, Seme Jaungoikoa, Espiritu Santu Jaungoikoa, Jesukristo geure Jaunaren Jaungoikotasun eta gizontasuna. Bertan ikustatu ta iminten eban bere zerua, egiz eta benetan Santuen atsegiña ta zorionekoen poz eta alaitasuna Geure Jaunagan dago-ta.

Egunean-egunean Geure Jauna artuten eban, itzal aundiagaz eta ondo gertauta.

Eskeñak emon ostean barausten yoaten zan besteakaz Domingo be, baña oindiño biotz

-agurak Jaungoikoari egiten eragoion, ba ino-
gaz barbarik ezeban egiten eta inora begitu
bez; barausi ostean be, sari aurkituten eben,
Massaruti Peli Aba'n *Il Cuore trafitto di Gesù
al cuore del Religioso* deritxon liburua eskuan
eukala, Geure Jauna geyago maitatuteko, ge-
yago ezagututen.

Maitaleak maiteak gura daben guztia egi-
ten dau-ta, maiteari atsekabea dautsona norbe-
ragandik kentzean aleginduko da. Onan ba,
Domingo ekandu on edo birtuteak lortuten ebi-
len geroago ta leyatsuago, ta uts guztiak bere
biotzetik aldenduten, Jaunari poza emoteko.
¡Au da Geure Jauna artuteko benetako gertae-
rea!

Maite dabenak maitea sari ikusi gura izaten
dau, ta Domingo'k Jauna laztan-lasztan eban-da,
ikustaldiak egiten eutsozan. Onetan bai dagoa-
la itxitasuna geure erietan: geure Jaunari ikus-
taldiak egiten gitxi ikusten da. Ona da deunei
ereguak eta bederatzi urinak egitea, baina deun-
en-deuna dan Jesus, maiteen izan bear dogu,
ta ikustaldiak geure Jaunari geyagotuten ale-
gindu bear gara.

Yaupari eginda, mesea adi, eratasunagaz
eta gure alde odola emon ebanari biotz-agura

erakusten eutson; batzuetan negaŕak urtetan eutsan begi bietatik. Mesa erdian gogoan eukiten eban yaupari ta Kristoren batasuna, ba Jesukristoren ordeŕ yaupariak esaten ebala *Hoc est Corpus meum*, «Au neure gorputza da», ta ez: *Hoc est Corpus Christi*, «Au Kristoren gorputza da». Mesa emoten ikusten ebenak: *au deuna (santua) da*, esaten eben.

Sakramentu done-doneari eutsan zaletasuna obeto agertuteko, berak 1924'ko Iraŕa'n egiñeko gogo - eragokunetan idatzi ebana imiñiko dot.



«SAKRAMENTU DONE-DONEAREN OLDOZKETEA

(MEDITASIÑO A)

¡Ene Jesus laztana! Gau ta egun gugaz irauteko zuk daukazun gurari eder ori ikusita, ¿Goitiko esker aundi oregaz gu aiztuta ego-tea, al izan ete leiteke, egi ulerkaitz au siñes-tuko ezpageunke lez? Zuk guri dauskuzun maitetasunagaitik espetxeratuta zagozan oteundegitik (altaratik) dirauskuzu: Nekatuta, atsekabez zagozienok erdue, neuk suspertuko zaituedaz-da. Venite ad me...



Efoma'n, S. Karlino'ren lekaretxea ta bertan Jaungoikoaren
otseña'ren (†) gelea



Gorka-Eleizea ta Lekaretxea

ERABAGIAK

Jesus, zeuk emongo daustazun poza naikotzat artu-ta, geyagon bila enaz ibiliko.

Saritan egingo dodaz gogozko yaunartzeak, oteundegire gogoa biurtutea erez egindakidan alegindu-ta.

Neure siñesmena biztuten aleginduta, saritan eukiko dot gogo artean egi ulerkaitz au.

Yaunartze ostean neure gogoa ara-ora ibili ez dakidan ardura-arduratsu egongo naz. Neure beařizanak adierazoko dautsodaz, neure burua opatuko dautsot eta egunean-egunean neure eskintzak (botoak) bařiztauko dodaz.

Zu beti darion eta ganez dagoen iturria zara, ta beti ixiotuta, amatetan eztan sua. (Kempis, Kristoren antz-bidea VI bib. 43 a).

Geure Jauna besteak be artu eien gura eban. Ara 1920'gařeneko Uřila'n 17'an bere aitari idazten eutsona:

«Aita laztana: zeure deun-eguna laster da-ta, biotz-aguřik samuřenak damotzudaz, zori-onez beterik eta neke osoan egun ori igaro daizun gura neuke. Elexa ama deunak egun ořetan beretzat artu zinduzan, orban guztietatik

garbituta graziz bete ostean, ugutz edo bateo deunaren bitartez. Egun oréetan aita-ama-bitxien agoz Jauugoikoaren otsein zeure burua opatu, ta pekatuari itxiko zeuntsola agindu zendun.

Artu dozuzan mesede guztiakaitik eskerak emoteko, ta auñerantzean obeto otseinduteko liguntasuna eskatuteko, egun oréetan Jauna artzera yoatea ondo izango litzakizu. Jesus, gurgana etorri ta zeruko ondasunez betetako gurari sutsuz dago. Geure Jauna artu ostean da aldirik onena grazi ugariak lortuteko. Orduan Jesus gure biotzean dago esaten: «¿Zer gura dozu egin daitzudan?...» ¿Eskatu ez egitearren ezeukiak izan gura ete dogu?... Orduan biotz-biotzez Bere otseintzat zeure burua opatu egiozu, egiñeko gaiztakeriakaitik parka eskatu, ta grazia, pekatuekaz Jaungoikoaren adizkidetasuna galdu eztaizun...»

Meseatzaz bañiz bere ixeko Justa'ri idazten eutson (1926'ko Lotazila'n 23'an): «Urtean mesa batzuk zeure alde ataratea, Jaungoikoarentzat atsegingaí eta zeuretzat egoki-egoki izango litzakizu. Meseak onura ezaígai geyago ta ziuíagoak daukoz bizientzat iléntzat baño-ta». Jauna maite eban eta besteak be maitetutea gura eban.

Eleiza Ama deunak aginduta daukazan uskurtzerak (zeremoniak) zeatz gordetea gura izaten eban. Mile ta bederatzireun eta ogeta seigaren urteko Dagonila'n *Rocca di Papa*'ko lekaidetxean egoan, eta nagusiak nozipein Karmeldar lekaimetara bidalduten eban; oneik ume asko daukie ta umeak bakañean ezin itxi leiz-ta, ekandutzat eukien mesa erdien yaupariak, Geure Jauna, umeak egozan lekuetara eroatea; Domingo abak esan eutsaen a ekandua uskurtzerak galazoten dabela, ta neska-mutikoak Yaunartuteko erea erakutsi eutsoen, eta onan txarto egiten zana arteztu zan.

1925'ko *urte-deunean* Karlino deuna'n ele-xara erbesteko yaupari bat etofi zan, uskurtze-reen ardurarik artuten ezebana; askok ikusten eben eta txarto eresten yaken, baña iñor etzan azartuten berari esaten; alango baten Domingo'k ikusi eban eta berba bigunekaz, banazean deituta, berari esan eutsan; lelengoan txarto artu eutson, baña Domingo'n era samurak goitu eban eta yaupariak azkenez eskerak emon eutsazan.

AMABIGAREN ATZALBURUA

Jesukristoren Nekaldi-en gomutea.—Mixiozale

YAUPARIAK Geure Jauna emon ostean esaten dau: «Ene, Kristo artu eta bere nekaldiaren gomutea bariztauten dan yanaria». Onan ba Sakramentu deunaren zaletasunagaz nekaldiaren gomuteak batera yoan bear dau; one-gaitik Domingo'k gogoan, sañi bai sañi, eukiten eban. Karlos deunaren ikastetxean egoanean, saspi garizuma eñeskadatan kurutza-bidea zuzenduten eban. Eta atzeneko bere gexo aldian be, oyan egoala, onetarako eskubidedun kurutzea lortu-ta, Kurutz-bideko onespenari (kalbarioai) ez eutson itxi. 1927'ko Epaila'n (Martian) 4'an, Belmonte'tik ixeko Justari idazten eutsan: «Bakarean zagozanean eta astia daukozunian, ba'dagoz liburuak-eta, Jesukristoren bizitzako egi ulerkaitz aundiak eta bere nekaustea gogoan erabiltea egoki izango litzakizu. Kristoren yazokunak gomuteteak asko irakasten dau,

«done-bidean yañaituteko sendotu, ta irabaziak ugeritu egiten dauz».

Kurutzearen ezaugarria (aitearen) bizitza guztian astiro ta itzaltasunagaz egitea, Lourdes'ko Bernarda zoriondunaren egimen garaiak (virtudes heroicas) egiztatuteko imiñi eben; eta egoki izango dala uste dot Berbizkundeko Kostantino Aba'k gai onetan Domingori buruz diñoana: «Koruan, naiz ikastolan, naiz yantokian «Aitearen» Domingo'k lez egiten iñor eneban ikusi. Eztakit ondo zer asmetan neuntson. Berbak garbi esan, kurutzeak astiro egin, zaletasun eta batutasun aundiagaz. Tximis-burdi (tranbia)-etan, Elexa auñetatik igarotean eta biraua entzuten ebanean, Eñoma'n «Aitearen» egiten ikusi neban. Bigun eta samur, arpegia goñituta Andra-Maria'ren auñean kurutz-irudia egiten sañitan asmau neban, ikastetxe nagusira yoan auñetik, koruan bakañik egoanean eta bere gelan be bai».

¡Domingo Aba'k bai emoten dauskuz emen ikaskizun eder eta yañraigariak! «Aitearen» egi-teak gatx ez dirudi, baña tximisburdietan (tranbietan) nai osteango burdikietan aldatz gora egiten da, askok esamesen bilduñagaitik egin barik isten dabe. ¡Nagusitasunik aundiena ira-

garten, kristiñau-ezaugaria emoten lotsatu...!

Pedro beldu (apostolu) deunak diño: «Kris-to'k gure aldez nekeak iruntzi ebazan eta ikas-bide edera itxi eutzuén, berari yaraitu dagio-zuen» (I Petri II, 21). Eta Domingo, Jaunari antza artuteko, beti pozik, lenengo nagusiaren menpean esanak egiten zoli-zoli Jesu-kristoren antzera ibili ba'zan, nekeetan be ez eutson itxi gura.

Irukoiztañen lekaidetxeetan astean iru bider astinaldiak, zartadak bakotxak bere gorputzari emoten dautsoz, eta Domingo'k bigun ezeutso-zan emoten, odola atera arteraño baño. Aztertzako urtean (nobiziaduan) sartu zanetik, zurdatza (1) erabilten eban astean biritan. Gozoak eta emoten eutsoezanean, gorde ta beste bateri emoten eutsozan.

Irukoiztañetan elgaroan Abenduan (lau as-tean) eta saspiamarkaroetatik paskuetarte (be-deratzi aste) okelarik ezta yaten, eta ostean be igandetán (domeketan) eta yai aundietan ba-kañik. Elgaro guztian eta aratustetik (karnaba-letatik) Paskuetara barau egiten da egun gus-

(1) Zurdatza da sañantxen antzera burdiñari (alanbrea) agaz egiñeko edea, isterean iminten da geyenetan. Min aundia egingo dabela zetan esan be eztago, alan be estu lotu ezkeró.

tietan. Urteko ganetiko egunetan be asteen lau bider, Paskuetatik Iraila'n amairurarte, ba aro onetan barikuetan bakañik barau egiten da. Domingo'k izentau dirian aratuste (aragi iste) ta barau egunak uts barik eta estu egiten zitu-tuan. Beti be gitxi yaten eban, egun guztiak barau egiten zituala esateko eran.

Agiriko neke ta laztasunok artzea askotzat ezeukan, eta bañuko griña ta gurariak, norbe-ren andizan gurea ta... mostuten alegindu zan eta lortu be egin eban. Bere adimen eta oroimena, Jaungoikoagana eroango eben gauzetan bakañik, ezañiko ebazan. Naimena (guraria) lur-etik azkatuta Jaungoikoaren gurariagaz batuta eukan. Irudimena siñesmenak argituko adimen menpean eukan.

Bere onberatasuna arerio barik ezegoan. Lekaide batek maltzuña ta donizuna zala esaten eutson, eta gerorantza nagusi egin eien deun-zinuak egiten zituala; Jaungoikoaren otsein onek berbarik be ezeutson erantzuten eta asañatu be etxakon egiten.

Jesus'ek nekaldia guztiak gaizkatutearen igaro ebala ta «Jaungoikoari bakañik omena ta aintza» (1 Tim. I, 17) yagokola ondo ekien, eta yakiñik oindiño askok eta askok Jaungoiko

guzurkoak gurtuten ebezala, biotza minduta eta maitetasunagaz garretan, otoi egiten eban guztiak Elexaratu daitezcan eta bera geroago belguntza lekuetara yotateko asmoakaz osakak ikasten ibiltzen zan. Eta mixiolari yotateko guraria biztu egiten yakon «Aita gurea» «Santifikadu bedi zure izena...» «Egin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be» esaten eban bakotxean.

Ara zeinbat kristiñautasunean eta zeinbat inpernurako bidean dagozan:

305.000.000 kristiñau - benetakuak. —
158.000.000 zismatikuak (zatituak). — 220.000.000
ostelariak (protestanteak). — 13.000.000 ibertar-
ak. — 240.000.000 Maomarak. — 24.000.000 Sin-
toistarak. — 138.000.000 Budararak. — 158.000.000
animistak. — 200.000.000 Indutararak. —
270.000.000 Konfutziotarak.

Alde batetik Jaungoikoa laztandu ta bestetik
lagun-urkoa maitatuten eban-da, ainbeste arima
infernuko bideetan ikusita otoi bakarrik egiteari
gitxi eretxita, Domingo'k misiñoetara yoang ura
eban.

AMAIRUGAREN ATZALBURUA

Andra = Mariari ta Santuai oneraspena.

KRISTIÑAU siñesmendun batzaña da Elexea ta beronen buru Jesukristo, ta Jesus'en Ama, Andra-Mari Birjiña edo neskutza; ta onan guk be eleiztar garean aldetik Andra-Maria, ama dogu. Eta ama ¿nok laztanduko eztau? Biotz zitel eta gogorëkoen batek izan ezik, guzti-guztiak gurariz, oldozmenez eta egitez maite izaten dabe ama.

Domingo aba bañiz biotz-bigun, samur eta onekoa zan, eta eztago zetan esan be noragiñoko oneraspena izango eutson.

Praile edo lekaideentzat bere lelengo txerea onan zan: *Ave Maria*=Agur Maria, eta erantzuten yakon: *gratia plena*=graziaz betea.

Andra Mari yaiyetan opari berezizkoak egi-ten eutsazan, eta yaikunde oneitarako bedera-tziurënakaz eta nekeakaz gertetan zan. Eta bere lagunei egun aitan iribañeka itanduten eu-

tsen: *¿Zuri zer ekañi dautzu gaur Ama Birjiñeak?*

Agurtza edo érosarioa gogo sutsu ta one-raspen aundiagaz beti esaten eban.

Maitatuteko ezagutu egin beaí da maite-geia, ta Domingo Andra-Maria ondo ezagututen alegindu zan, onetarako Ama Birjiñeatzaz da-gozan idazti edo liburuak irakurita. Zeruko éregiñari eutson zaletasunak, bere arimako ar-tegatasunak kendu eutsozala bildur barik esan-geinke, Bernardo Deunak diñoana egi ziuía da-ta: *Totum Deus nos habere voluit per Mari-am*. Guk guztia Mariaren bitartez lortutea gura dau Jaungoikoak.

Ara emen Ama Birjiñatzaz idatzita eukazan oar batzuk: «Ama Birjiñearen otseintzan bizi-danak, atsegintegia bertan balego lez, ziur dau-ko» (Gaíeko abadeak).

«Eskinten datsozuna Jaungoikoak abegi-onez artuko eztautzun bildur ba'zara, Jaungoi-koari opatuten dautsozun guztia, Maria'ren es-kuetan iminten alegindu zaite» (Bernardo D.'k).

«Maria'k Semeari gelditu eragiten dautso-zauritu eztaien; gogaizto edo demoniñoari eus-ten dautso kalterik egin eztaien; irabaziak on-datu eztaitezan yagon egiten dauz, eta grazia-

ren yagola egiten da, galdu eztaitezen (Bernardo deunak).

Santuak yaíraipidetzat emoten yakuz eta audala-ta, Santuai be Domingo'k zaletasun aundia eutsen, geyen baíiz Pedro ta Paulo deunai.

Kristiñau zintzo ta benetakoak izan gura dabenak ikasi beye emen, oneraspen benetakoa miñean bakaíik eztagoala, egiazko oneraspen-erako egitadak bear-beaíekoak dirala.

AMALAUGAREN ATZALBURUA

**Jaungoikoa ta lagun-urkoa maitatueran,
euskelzaletu.**

PEUNTASUNEKO bidean lelengoa, Jaungoikoa maiteen izatea da, ta gero, Jesu-Kristo'k berak diñoan lez, lagun-urkoa maitatutea (Math. XXII, 37-39), ta onan, lelengo gurasoak laztandu bear doguz, urengo seniderik urkoenak, gero endakiz, izkunez, oituraz eta edeztiz bat egiten gareanok.

Domingo'k Jaungoikoa maiteen ebana lez, bere ereguetan gurasoen ardura ta gomutea eukan eta gero geure Euskal-Eria maite laztan eta kutunena be bai, ta bere gogo bigun eta gozoa, euskal - eriko gauzatzaz berba egiten ebanean bakarik garaztu ta minberatuten eiya-kon.—Euskaldunak erlejiño gauzetan gitxi dakie, eta erakusten bear dan alegiñik ezta egiten. «Domeka yaietan ebanjelio edo goizpara azaldu, ta umeari kistar - ikasbide apur bat

irakastea naikoa ezta» sutsu esaten eban.

Geure asabaen izkuneak erlejiñoa unetaraño sartuta daukela ta izkune onetan zabaldu ta eleiz-gauzak euskaldunai erakustea gura eban. Eta berak be bakañean euzkeraz eřegu egiten eban, bakotxentzat bere izkunea langorik eztago egon be onango gauzatarako - ta. Geure amak altzoan geunkazala, mosuz yosita irakatsi euskun berbeta samur, estitsu ta biguna baño egokiagorik ezin leiteke egon be, geure Egile, Beřerosle ta Aita dan Jaungoikoari berba egiteko-ta.

Ezeban gura euskal-oiturarik galdu zeiten, oneikaz batera antziñako kristiñautasun zindo ta zintzoari be erain aundia egingo litzakiola-ta.

Benetako gurari beroa eukan euskeldun umeak euskeraz kistar - ikasbidea ikasi eyen, ostean erlejiño ezyakinkeria gerorantza sartuko yakiela-ta.

Tamalgari ta eřukia egiz emoteko eran dagoz euskal-eři batzuk egon be. Neu egon naz iru lau eřitan: euren artu-emonetan euskeraz egiten eben eta sermoi eta itzaldiak erderaz egiten yakezan; zetan esan be eztago eři aye-tan asmetan zan erlejiño ezyakinkeria. Beste euskaleři azitxo baten kistar-ikasbidea (dotri-

ñea) erderaz irakasten da, ikastolan alan emoten dala-ta.

Mixiolarien bañi be erderatik artu bear dabe euskaldunak; au dala-ta, siñesgeen ardura aundirik baseñitañak eztau oindiño artu, an dauken bizipide ain estu ta lañien bañirik ondo ez daki-ta.

Gau-gurtzaleen artean euskaldun asko dagoz eta amaika eñegu eder egiten dabez gabetan; baña geyenak zer esaten daben aituten eztabela.

Euskaldunen seme-alabak erderaz ikasten ba'dabe dotriñea, burdiña gorieri lez yazoko yakie: burdiñea bein goritu ezkerro sututa dagoala esan lei, baña surtetik aterata laster dauken suari itxiko dautso. Euskaldun umeakaz be, bardin yazoten da; euren izateari dagokion lez ez dabe ikasten, eta gero eskolako berotasunetik urten orduan, ikasi ebena aiztu, treustik aitu ezebalako; eta emetik datoñen okeñik txikiena astia alpeñik galtzea da, aundienetarikoa bañiz kistar-ikاسبidea umeak erderaz buruz ikasi dabela - ta, gurasoak, eta bear ba'da arima -arduradunak be, gai onetan euren eginbeaña bete dabelakoan egotea; eta bien bitartean umeak ezer yakin ez.

AMABOSTGAÑEN ATZALBURUA

Eskintze edo botoak zainduten zintzo-zintzo egikizunetan gizagurena.

LEKAIDE edo fraile guztiak iru eskintza egiten dabez: ezeukiak izateko, esanak egiteko, ta garbitasuna yagoteko; Domingo'k zintzo bete ebazan irurak, ezeukitasunean gorengo mañan yañi zan, oñak artuteko periodiku (izpañingi) bañenak eta beste ingi (papel) zar batzuk erabilten ebazan. Oyan eukazan ardi-ule estalkiak (mantak) guztiz zañak ziran, ez Nagusiaren eñuz, berak alan gura ebalako baño. (Baña zar -zalea bazan, garbi zalea be bazan, bere garbi-ikusietan arduratsua).

Bein baten bere ikaskide bateri esan eutsan, lauakoak erabilteak be naigabea emoten eutsola. Beste baten aitari idazten eutson: «Jaungoikoa maitatutea izan ezik, beste gauza guztiak igarokoñ eta ilkoñak dira. Bizitza onetako aberastasun eta ondasunak une bateko poza baño ezti-

ra... Eriotzarañoiko baño eztira. Laburak izan eta garastasunez eta arduraz nastuta dagoz. Au dala-ta, arimako aberastasun iraunkorak eta zeruratuko gaituenak pilatu bear doguz».

Benetan esan geinke Domingo'tzaz: «Zorionekoak gogoz ezeukiak dirianak, zeruetako agintzea euren da-ta».

Eta garbitasuneko eskintzea zelan bete ete eban? Igokundearen Antonino aba'k dirausku bein baten arimako gauzak agertutorduan iragarri eutsola, neska-zaletasuna asmau barik, emakumeakanako biotz - ostasuna asmetan ebala.

Eroma'n irudi alan-olangoen albotik igarobear ebanean, besterantza begitu ta otoi egiten eban.

Azkeneko gexoaldian be Yayokunde'ko Paulo Aba'k diño: «Gexoak bere beařízaretan laguntasunik ezeban eskatu; bera atonduten zanzelan edo alan; bere eriotzako egunean be ezeban eskatu.»

Esanak egiteko eskintzea ondo bai ondo yagon eban, beti gogoan eukiten eban Nagusien buruz idazteunetan esan zana-ta: «Zuorientzuren dautzuenak neuri entzuten daust, zuori yaramonik egiten eztautzuena neuri eztaust



Domingo Anae, Irukoitz'tar izateko gertetan,
13 urte ebazanian

egiten» (Luk. X, 16). Idatzi danetik naikoa ikusten da esanak egiten zintzoa zala, orain geyago esan barik be.

Eginkizunetan gorengo malara igon ebala 1924'an berak egiñeko erabagiak esango dauskue.

«NEURE BIZITZARAKO ASMORIK URTENENAK (NAUSIENAK).

1) Onena dala ezagututen dodana egiteko eskintzea.

2) Jaungoikoari ezer be ez ukatu, ta bai zindotasun eta alaitasunagaz bere goyargi deun-ai yañaitu.

3) Neure eginkizun guztiak eurenez ez onak ez txarrik dirianetan, txikienak be, maite-tasun eta esanekotasun indaragaz (espiritu) biz-tuten aleginduko naz; baña au egingo dot bes-teak igeri ez eiteko eran.

4) Besteak egiten dabenari ez dautsot be-gituko, neuri Jaungoikoak eskatuten daustanari baño. Jaungoikoak niri geyago eskatuten daust, besteari baño grazi ugariaguak, emon daustaz-da.

5) Maria'ren bitartez Jesus'eri neure burua eskinduko dautsot; au dala-ta, auñerantzean bere gauzea ba'nintz lez egongo naz, eta edozein

gauza yazoten yatanean, zoriontsua nai atsekabetsua, neure gurarien eraz, nai okeretara, esango dot: Ni Jesus eta Maria-rena naz. Eta eurei geyen atsegin yakiena egin dayela. Eta bide onetatik zear ibiliko naz edozetan goraldu-ten nabenean be, goralbenetan ez poztuta, nire bitartez ori egiten daben Jaungoikoagan baño.

6) Ilen lelengo igandea batutasun aundia-goan igaroten aleginduko naz, igaro dan ileko azterketea egiñaz.

7) Eguneroko eginkizunen artezketa igande edo domeka guztietan egingo dot, eta oneik asmoak betetan ete dodazan. Neke batzuk artuko dodaz uts egin ba'dagit. *Probatio virtutis exhibitio est operis.* (Gregorio D.)

8) Neure biotzean gelatxo bat egiten aleginduko naz, Sena'ko Katalina deunaren antze-
ra, neure arazoetan baturik egon nadin».

AMASEIGAĖN ATZALBURUA

Gexotuta Euskal-Eřira dator.—Lourdes'en.—
Algorta'n

MILLA ta bederatzireun eta ogetaseigaĖn urtean irukoiztar ikasle bi gexotu ziran, eta Domingo, maitetasuna agertuaz, gexoen otsein egin zan; geure Jauna (elexakoak) berak eroaten eutsen, bulařetiko gexoak yo eban arte. Bagilean 8'an kalentura edo beroen aundia-gaz oyan gelditu zan. Gexoari lagunduten ibili ta erantsi egin yakola uste ebenak be baziran. Dana dala, lenengoan ařiskurik ezeban iragar-ten, eta guztiak laster osatuko zala uste eben, osalaria (medikua) bulařetikua ete zan susma-tuten asi zan arte. Gexoaldian agurtza edo eřo-sario osoa esaten eban, eta Deunen gorpuzkiñak (eřelikiak) kurutzetan sartzen egoten zan.

Oindiño ilgo zanik iñok uste ezebanean lgo-kundearen Antonio Aba'k itandu eutson: *¿Au azkenengo gexoa ba'litz, pozik egongo ete*

zeintekez?—Eta zegaitik ez? erantzun eutson, iltea ez gura izatea utsa da.

Beste baten, osasunez egoala, Antonio Aba'ri esan ei eutson: «Aba, gazterik ilten dirian lekaideen inartzia (enbidia) daukat, eta geyen Nekatsuaren Gabirel deunaren eriotzearen inartzia, bizitzako loran eta bula'etik il zanena».

Urtziztiko (teolojiko) azterketea egin ostean, Garagañilean 26'an, Nagusiak *Rocca di Papa* deritxon lekaidetxera bialdu eban; lekuatan gexoen obaria asmau eban eta osatuko zala uste zan, bula'etiko gatzak yota egoanik susmau be ezeben egiten-da.

Mesa emoten karmeldar lekaimetara (mojetara) yoaten zan, lekaidetxetik kilometro bien, bere begirunegaz ikusten eben guztiak onbideratuten ebazala. Goxeko otzak eta lekuen goratasunak arin iragarri eben eukan gexoa. Estulka asi zan eta lepoko miña asmetan, eta laster igarri zan Domingo bula'etik egoala. Entzunik ara atsekabetu zan, ain gazterik il bea' ebala gomutauta. *¿Zelan da au?* bere artean esaten eban, *jardura aundiagaz eta maitasunaz beterik ikasi dot, Irutasun deun-deunaren oneraspen eta gurtuera alde guztietan zabalduteko, ta nire gurari biziak alpe'rik izan*

dira, nire ikasteak ezetako bez, yauparitura laster il beař... Dum adhuc ordiner, succidit me (Is. 28, 12). Baña oneik biotzaren lelengo erainkerok asmauegaz batera, Jaungoikoaren eskuetan itxi eban bere burua, ta bere grazia-gaz bat eginda, uréan ikusten eban eriotzea gogoz artu eban. Tomas deunak diño: luř onetako gatxik aundiena eriotzea dala, ta pozik artzeak irabasi asko daukala.

Rocca di Papa'n ilabeteen egon zan eta guztiak bere ontasunagaz ikaratuta, miraritura itxi zituan. Andik Eřomara yoan zan Euskal-Eřira etorteko gertetan, bere yayoteři inguruak gexoari on egingo eutsela uste eben Nagusiak, Morelli osalariaren eretxia entzunda. Osalari au be Domingo'n ontasunak ikaratuta itxi eban.

Euskal-Eřira etoři orduko bere arimako aita'ri, Pedro ta Paulo deunen elexak ikustatuteko baimena eskatu eutson, len esan dan lez one-raspen aundia eutsoen-da. Gero eskeřak emon gexo-yagola nagusiari ta bere arimako aitari ta Eřoma'tik alde egin eban 1926'ko iraila'n 3'an. Agurtute samuřa benetan izan zan, asko gura eutsoen-da; lekaide guztiak besarkatu ta zeru-rarteko agur biguna egin eutsoen. Eukaristian'n Jesus'en onesmena, Maria'ren zaindaritza, ta

Rafael goiangeruaren laguntasuna eskatuta, *Termini* geltokira eroango eban burtariñean (kotxean) sartu zan. Ara emen bere ibilpidea: Genoba, Beintimille, Marsella, Endaya, Tarbes' tik zear Masabielle'ko aspean Andra - Maria ikustaldu gura eban-da, Donostira. Iraila'n 5'an Lourdes'en egon zan, Ama Birjiñeari bere ari-mea opaldu eutson eta gorputzeko osasuna eskatu, egoki ba'zan: Ura be edan eban, baña alpeñik: Jaungoikoak Domingo'n bizitzarako ebatziko egunak bete ziran - da: *Constituisti terminos ejus, qui præteriri non poterunt*. Egun atan berean ilunabañean Donostira eldu zan. Urango eguneko goxean Bilborako bultzia (trena) artu eban, eta andik Algorta'ra yafaitu eban eta beiñ ona elduta, egun batzuk bertan igaro ondoren, Aba Antonio'ri Erroma'ra onelan idatzi eutsan: «Ibiltaldia gora bera aundi barik; nitzat nekoñ eta aztuna izan da baña...Aste guztian beroena (kalenturea) 38 malakoa daukat, eta guztiz gokabe nago. Igeñi-igeñian berantza noa... Onetsia izan bedi Jaungoikoa eta Bere gurari deuna egin daitela».

Urila'n 2'an Algorta'tik idazten eban obari apuñik asmetan ebala, ta Teresa deunaren Pedro lekaiderkabak, Ignazio bere (Domingo'n)

anayari etoñiazoz egin eutsola «Bien-Aparecida» ko lekaidetxetik. Alboan eukan artean, anayari irakatsi onuratsuak emon eutsozan, ikasleari egokiozanak lelengo, ta gero lekaideari egokio-zanak. Latin be irakasten eutson eta geure Jauna zelan artu gertetan be bai.

Egun oneitan lenagoko bere irakasle zan Beñeroslea'ren Jose Aba'k ikustaldu eban, eta onan idazten dau: «1926'ko Iraila'n oyan ikustaldu neban biritan. Bere arpegiak, bere berbeak eta geyen bere alaitasun ain deun eta ain maitagarñiak itzaltasun sakon eta biotz ukutze aundia egin eustan.

Urila'n 15'an Neskutzaren Peli abari idazten eutson Domingo'k: «Lekaidetxeak (ordeak) gurari on eta gogoz betetako gizonak bea' dauz, bere alde burua opalduteko».


Idazki oneitatik, Domingo'k bere gexoaldiko nekeak zelango alaitasun, eroapen eta sendotasunagaz eroaten zituan agiri-da.

Eñomako ikaslai Domingo'k berak idatzi eutsen idazkiak Jaungoikoaren gurariagaz bat eginda egoala, eta atsekabeen artean gogaldi ona eukola iragarten dabe. Ara: «Etoñi nazanetik, Algorta'tik ez dot urten. Orain arte beti oyan egon naz. Orain bederatziterdietatik bas-

kalduarte yagiten isten dauste. Aldi txartxo bat igaro dot, ia egon nintzan il mesa bat ger-tatu daizuela idazteko, Pedro A'k e'itara da-ta epistolea abestu daien... Orain osalariak obari aundia asmetan dauste; bestelako zoriona da gazterik iltea, zeregiñetan eta arazoetan (en-pleo ta opizioak) sartu barik norberen buruaren zeaztasuna baka'rik emon bea'r danean... Erio-tzean eta bizitzean Jaungoikoaren gurariagaz bat egitea da arduratu bea'r gaituana. Anaieri lez ixilkai bat agertuten itxiko daustasue... Ainbeste urtetan batera bizi izan gara... Ni zo-rionez edo txa'ez yagola izan naz eta yago-laen eginbea'ra anaieri lagundutea da, bai lu'onetako bea'rozenetan eta bai onbidean au'reratu-teko be... Eginkizun onetan guztia artez ezta egon, eta sa'ritan eztabaidean egon naz beste mundura yoan bea'r ete dodan; eta Pedro deu-nak, zeaztasunak eskatuta, gura eneuken lekura botako ete naben bildur naz».



Jaungoikoaren oiseñaren (†) yayotetxe ta inguru margozagariak



Dima—Deun Kepa Apostoluaren eleiza

AMASASPIGAÑEN ATZALBURUA

Yuře'n eta Dima'n

1926'ko Uřila'en azkenetan obaria asmau eban eta nagusiak Ařatia'ko ibařean dagoan *Yuře*'ko eřira bialdu eben, osatu zeiten.

Yuře'n egin eban bizikeratzaz amen bere osaba Soloeta'tař Ilario jaunak diñoana: «Gexorik txarto egon ařen, gitxitan mesea esan barik itxi eban. Geyenetan seiterdietan yagiten zan. Mesarako gertetan ordu erdi emoten eban, eta beste ordu erdi eskeřak emoten; gauza guztietan zintzoa zan, osalariak esaten eutsoenetan be bai. Bere gexoaren atsekabeak ezebazan iragarten. Beti alai ta iřibařeka ikusten neban. Bere autue atseginkořa zan, munduko gauzetan ardurarik imiņi barik. Santuen bizitzeatzaz berba egitea atsegin izaten yakon eta orduan biotza ixiotu egiten yakola esan eukean.

Bakařean egoanean, *Jesu-Kristoren Antz-bidea* euzkeraz irakurten eban, Pi Aba karmeldarřak euskeraratu-bařia.

Lagun askok esaten eusten: «¡Beroñen lo-bea santua da! ¡Mesa emoten ikustean itzaltasuna sartzen dausku! Eginkizun guztiak santua dala adierazoten dabe».

Bere yayoteñi Dima'ra yoateko gurari bizia eukan eta Andra-Mari aurkezkunde egunean yoan zan. A eguna beretzat pozgaría zan. Dima'ko Elexa - nagusira goxetik eldu zan, eta mesa egin eban eta Geure Jauna emon guraso, anai, senide ta beste eleiztar askori. Irakatsi on batsuk emon eta Jaungoikoa goraldu ebala-ta pozik Yuñe'ratu zan. Ezotasunak kalte egiten eutson-da, leku legoñagora bialdutea ebatzi eben.

Yuñe'tik urten orduko gurasoai deitu eutsen eta beste leku batera yoyalako samintasunik iragarí barik, gurasoai esan eutsen seme-alabak Jaungoikoaren bildur santuan azteko. Anayari, beañ bada azkenengoz berba egingo eutsiela-ta, onak izateko, sakramentu deunak sañi artuteko, ta guraso ta nagusiakaz apalak eta esanekoak izateko.

Azkenez osabeari eskeñak emon eutsozan, berbaz eta idazkiz emon eutsozan irakatziakaitik. Gomutagaritzat ikasteetan irabazi eban *domiña* bat emon eutson eta besarkatu ta zerurarte agur egin eutson.

AMAZORTZIGAREN ATZALBURUA

Madrid'en eta Belmonte'n.

SEMENDIVAN (azila'n) azkenetan, Yurén ilebete egon ostean, Algortara biurtu zan, eta egun gitxi bañu Belmonte'ratuteko gertauta egoan. Iñe bete inguruan Madrid'en gelditu zan. Lekaiderkabak lagunduta, osalari urten bategan na yoan zan; Domingo'n begiruneak biotz-ukutze aundia egin eutsan osalariari. Lekaidetxera eldu ta oeratu bea' izan eban osalariaren aginduz. Oyan etxun da oldoztuten asi zan ¿zer ete zan oldoztuten ebana?—*Birietako gatxa daukat, iñ bea' dodana gauza ziuña da... Osakayakaz bea bada bizitzea apur bat luzetuko daustie, baña gitxi... Eta oyan egon-da mesarik egin barik ba'nago, ainbeste grazi eder barik gelditzen naz... Jaungoikozko grazi ondasunak ugarituten ba'dodaz, mesea egunero emonda, zer ardura daust iru-lau egun gitxiago biziteagaitik? Baña Nagusi ta osalarien*

esanak be egin bear dodaz. ¿Onena zer izango ete da?

Au izango zala bere oldozkaia Lekaiderkabagaz (Provincial) euki eban berbalditik egiztuten da; esan dirian berbak gitxi gora-bera lelengo esan eta gero samurtasunagaz esan eutson: *¡Lekaide - erkaba! mesea emoteagaz irabazten dan grazi piloa siñestu ezin alakoa da benetan.*

Domingo Aba'ri mesea emoten itxita Jaungoikoa geyago aintzalduko ebala-ta, biotza ukutu eutsoen berba oneik eta auxe erantzun eutson: *Domingo Aba, al dozun guztian mesea emon egizu.—Eskeñik asko aba, ta mesea emonda laster oeratuko naz.*

Egun baten ikustalduten yoan zan Lekaiderkaba, Domingo'k mesa emonda laster, eta Jaungoikoaren otseiñak iribañeka esan eutsan; *begitu ze arin oeratuten nazan mesea emonda... eskeñak ementxe emoten dautsodaz.*

Lotazila'n 23'an ixeko Justa'ri idatzi eutson zelan ibilkundea egin eban, eta bertan adierazoten dau pozez daroazala gexoaldiko atseka-beak; ara idazki aren zati bat: «Ni pozik nago, poz-pozik, eta oindiño pozago egongo ninteke, neke onetan eurok pozik eta Jaungoikoaren

gurariagaz bat eginda dagozala, yakin dagidan egunean. Ume-Jesus'eri gogoz eskatu eta bardin Birjiña Begoñako Ama laztanari, egoki bada, osasuna emon daisten, eta gero... artetsu egon».

Lotazila'n edoabenduan 29'an Madrid'etik Belmonte'ra (Kuenka) aldatu zan. Eri onetako lekaidetxean sartu zanean esan eban: *Emen lo egin eta atsedeen artuko dot.*

Domingo'n gexoak Madrid'eko osalarien eretxipean gora-berak euki ebazan, baña beti txarto egoan.

1927'ko Urtañila'n 10'an Igokundearen Antonino Abari idatzi eutson: «Mesea egunean egunean esaten dot eta arendia yai aundietan. Nire guraria egunero esatea litzake, baña nagusiak isteko esan eustan; au dala-ta, agurtza edo eñosario osoa esaten dot. Mundu onetako ezer eztala bea' esaten da Jaungoikoa maitatuteko ¡baña ondo indarge ta urí ibilten gara ez-taukaguzanean! Nire arimea, lu'ra ur barik lez gelditu da, *Sicut terra sine aqua tibi*; lur onetako gauzak gitxi-gitxi eurekanatuten nabe baña».

Urtañila'n 23'an osaba Iario jaunari idatzi eutson: «Nire osasun-ardureagaitik eska'ak dagitzudaz. ¡Jaungoiko Gure Jaunak ordaindu

daitzula! ¡Beti ta guztien artetik Jaungoikoaren gurari zuzen-zuzen, deun deuna ta beti egoki dana egin bedi!»

Egun atan berean idatzi eutsen gurasoai, bere osasun ardura laéregi eztaielá euki. «Jaungoikoak egokien dana emongo daust. Ni poz-pozik eta zorion - zorioneko bizi naz; baña pozago egongo nintzake Jaungoikoaren gurariagaz bat eginda, pozik egongo balira».

Onan gurasoak Jaungoikoaren gurarikide egiten aleginduten zan.

Epaila'n (Martian) 4'an idatzi eutsen ixeko Justa'ri txartu egin zala, gero: «Jaungoikoa aita ona da. Emoten dauskuna ona izango da».

Gexo guztia adoretzu ta alaitasunagaz igaro eban, al eban guztietan mesa emoten eban, eta ezin ebanean, Geure Jauna itzaltasun eta oneraspén aundiagaz artzen eban, eta gero eskeñak emoten eta Jaunagan oldoztuten luzeroan egoten zan.

Geure erlejiñoaren egietzaz, Idazteunetzaz, donebide ta Urtzikolatzaz aba Nagusiagaz sañi berba egiten eban. Asi, beti Aba Nagusia egiten zan, Domingo'n azalpen adigariak atsegin aundia emoten eutsen-da.

EMERETZIGAREN ATZALBURUA

Eriotzea. Eortzia. Obirunea.

DOMINGO gexorik txartuaz-txartuaz yoyan. Yoñaila'n (Aprilean) 5'an eriotza ezau-gariak agertu yakozan, eta burtzoro edo delirioak artu eban. Ezauerea etoñi orduan, bere gexoaldian emoneko nekeakaitik guztiari parka eskatu eutsen eta goiz atan oneraspen aundia-gaz Elexakoak artu zituan, Geure Jauna ta azken-igortza. Azken igortz edo oleaziñoa añas-tian artu gura eban, obeto gertauta; baña Nagusiak esan eutsoenean ondo gertauta egoala, erantzun barik, atsegiñez esana egin eban.

Gatxak miña ta estaña be artu eutsozan eta érez ezin egin eban berbarik; au dala-ta, oldoz-kun deunak gogoan eukazala, ta Ebanjelioa entzuten eta esaten eutsezan otoi laburak gozatuten azkeneko aldia emon eban.

Ezaguera osoagaz eta onen baretasunagaz 1927'ko Yoñaila'n 7'an arimea Jaungoikoaren

eskuetan itxi eban; ogeta bost urte, amar ilabete ta ogetasei egun eukazala.

Burupeko (almoada) azpian «Jesukristoren Antz-bidea» euzkeraz, asko erabilia, Birjiñia-tzazko liburu bat, eñosario bat eta deuntza (trisajioa) esateko iru iruko dituan bederatzi garauko bat, Irutasun deunaganako oneraspena betetako, eukazan.

Belmonte'n gexoagaitik gelatik urten be ezeban egiten eta gitxik ezagutu eben; baña au ta guzti be bere obirunera asko yoan ziran. Nekausteko Ama'n eguna zan-da, a'astian ibildeuna egoan; au dala ta, Artziprestearen eskariz goxean egin zan obirakuntzea. Iltegiko elextxoan ogeta lau ordu egon ostean, obiratu eben; lekua irukoizta'ren kurutze batek izentetan dau. Urengo egunean *Requiem* mesa abestua emon eban. Aba nagusiak, Lujan Fausto abadeak eta sorkundearen Joakin aba, Domingo'n atzenengo autorleak, lagunduta.

Eukan gatxa zala-ta, osalariaren esanez, Domingo'k erabiliko gauzarik geyenak e'e egin ziran. Gelditu ziran okitegia baratariak (notarioak) egin eban. Filosofi ta Teologia ikasten erabili zituan liburuak Algorta'n dagoz, eta ikasiko gauzatzaz egin ebazan o'arak be bai.



Belmonte—Jaungoikoaren otseña il zan lekaretxea ta (†) gelea

Eíroma'n, gogo - iñarkunatzaz oarpen batzuk eta Euskal-Eíra etoíi arte erabili zituan gauza batzuk.

Domingo Aba'ren eriotzeatzaz Igokundearen A. Abak idazten dabena egokitizat imiñiko dot: diño arima onkoi bateri esan eutsola Domingo'n osasuna Jaungoikoari eskatu egiola, Jaunagandik mesede andiak artzen zituan-da. Biotz-biotzez eskatu eutsan, baña gure Beíerosleak esan eutsala a mesedea ezeutsola emongo.

*Loratan baratz batera zoyazanian,— esan eutsan,—zeuok lorarik onenak artzen dozu-
ez. Orixe egiten dot neuk be. Ori lora ori neuk
gora dot eta laster, pekatarien artean bizita
zimeldu eztaiten.*

Eta eskarien yaíaituta esan eutsonean luíre-
an bizi izan ba'litz on asko egingo ebala, Jesus'
ek erantzun eutson: «*Zerutik mesede geyago
egingo dau*».

OGEIGAREN ATZALBURUA

Santu = usaiña.

ZORUNDUNTZAT eta deuntzat iragarteko bide-etan salatari (fiskal) dan Salotti Karla argi-argiak, Domingo Aba'gaz Erroma'n egon zan zazpi urteetan, artu-emon aundia euki eban, eta il zala yakin ebanean, esan eban: «Santuenan eginkizunik ez dot beragan asmau. Biar, Kristoren berbizkundera, mesa bat bere ari-mearen alde emongo dot; baña auferantzean berari eskatuko dautsot santu ta zaindariari lez».

Gero esan eban bere bizitzea idatzi ta zoriondun iragarteko auzia asi bear litzakela, ta laster altaretan gurtuteko itxaropena daukela.

Teresa deunaren Pedro Abak 1927'ko yor-aila'n 11'an idatzi eban; «Lekaide onen bizitza ta eriotzeatzaz zer esan geinke? Bere bizitzea gizonezkoarena baño aingeruarena geyago zan,

ikaskide, irakasle, Nagusi ta beragaz bizi zirian guztiak diñoanetik».

Benetan, ezagutu eben guztiak deuntzat artu eben eta onetarako argi bide asko ekañi lei; baña esan dana naikotzat daukogu.

OGETABATGAÑEN ATZALBURUA

Domingo Abaren bitartez lorturiko eskeñak.

DOMINGO'N deuntasun-usaiña leku askotara zabaldu da, ta euren beařizanetarako laguntasuna eskatu dautsoenak be ez dira gitxi; lortu dituan esker edo mesedeetatik, (Elexeak ebatzi arte mirariak dirala ezkoaz esaten) emen iru imiñiko doguz.

1) Austrian Mötz'ko irukoiztañen lekaime edo monjetan lekaime-gei Katalina zeritxona gexorik txarto egoan, osagileak elexakoak eroateko esanda.

Ain txarto ikusirik irugañen egunean, osalariak Nagusiari esan eutsan Insbruk'ko txiro edo ezeukien gexotegira (ospitalera) eroatea egoki izango zala, gexorik luzaro egongo zala-ta. Aldatuteko guztia gertaurik egoala, Erroma'tik Sakramentu Deuna'ren Domingo Aba'n irudia eldu zan.

«Une atan—Nazaret'aí Jesus'en Kristina

aizta Nagusiak idazten dau,—irudia gexoaren aurrean imini gendun. Lasteréan loak artu eban, eta gauberarte lotan egon zan. Orduan beste osalari bateri deitu neutson eta osatuta egoala esan eban».

2) Bartzelona'n bost urteko ume batek Antonio Berges deritxonak, 1929'ko urteila'n amaseien, iru gramuko me-zati bat iruntzi eban. Osalariak lau egun yaraituetan oretarako osakai egokiak agindu aren, umeari iruntzi ebana botazotea ezeban lortu, ta edenduteko (enbenenetako) arisku aundia eukan-da, gurasoak estu aurkituten ziran. Bostgaeren egunean (domekea zan) amak biotz-biotzetik Irutasun deunari eskatu eutsan, Sakramentu deunaren Domingo aba'n bitartez, umeagaz erukitu zeitela, ta ogeta amairu aita gure esango eutsozala, opatu eutsan. Alperékoa etzan izan eskaria, ba egun atan me-zatia bota eban minik asmau barik, eta onan edenduteko ariskua kendu yakon.

3) Beste eska bat Bartzelona'ko «La Vanguardia»k eta Irukoiztañak Bartzelona'n argitalduten daben «Eleiz-oriak» dakarde; baña non eta noiz ezdakardelako yazokuna labur iminiko dot. Kortada'taeren alargunen aizta bat gexorik egoan este itsuko onazeak yota, gero

aunditua zornatu egin yakon eta onek goñiak igaro azoten eutsozan. Aragi-ebatea bildurgarri zala-ta, osakayakaz anditu zornetua kentzen alegiñik asko egin eben osalariak, baña alperik; orduan aragi ebatea ebatzi eben.

Onango asmuetan ebizela gexoaren aizteak bere otsein bategandik Domingo Aba'k mirari asko egiten ebazala yakin eban. Orduan Irukoiztañen lekaidetxetik ekañi eben Domingo'n irudia, ta onen aurrean iru «Aita gurea» esan ebazan Irutasun deunaren omenez; eta amaitu orduan, ara gexoak iñoana: «Zu, niri zer edo zer yazo yat, ba min ikaragarriak guztiz kendu yataz» — «¿Zer diñozu?» erantzun eutson aizteak. — «Ba eztaukadala miñik».

Añituta, baña ixilik egozan aizta biak eta monja osalaria. Aragi-ebaketea egiteko ordua eldu zanean, gexoa ebaketea egiteko lekura eroan eben, eta osalariak osatuta egoala ikusi eben, eta gatxak botazo eutsazan zornea garbitutea baño ezeuken.

A M A Y A

ERLEJIÑOAREN alde odolik eztau ixuri, bizitzan miraririk ezeban egin, goi-oldozpenetan extasis'ik euki ebanik ezta entzun. ¿Eta deuna izan ete leiteke? Bai, ta egoki da onan izatea. 1920'ko urtean, Urtañila'n, XV'gañen Benedito'k, Gorgone Jaun Bautista dala-ta, esan ebana, oneri buruz esan leio: «Deunak miragañi geyago diriala yañagañi baño, tamalez jenteak esaten dau. Esakun au guzurtetako, deuntasuna Jaungoikoaren gurariagaz bat egitea, bako txak bere bizibideko egin beañak ondo ta eten barik betetea dala erakutsiazotea baño egokia-gorik ez deritxat (Observatore Romano 1920'ko Urtañila'n 10'ekoak).

Oneik berbok irakuñi ta Domingo'n bizitzaren bañi yakin ezkerro, bildur barik esan geinke Domingo deuna zala ta altaretan laster ikusiko dogula.

Eta beren-beregiz Jaungoikoak aro onetan argi egin daien gura dauala uste dot. Elexarati

asko dagoz, eginkizunetan urri dabizenak: *Habentes speciem quidem pietatis, virtutem autem ejus abnegantes.* (2 Tim. 3, 5). Eta onei: Jaungoikozaletasuna eginkizunetan agertu egizue, egitadakaz dirautse. Beste batzuk—eta asko dagoz—Jaungoikoari yañaitu gura dautsoe, baña poztasunean, nekeari alde eginda: *Bonum est nos hic esse, faciamus hic tria tabernacula* (Mat. 17, 4). Oneiri diñotse: egunero neure gorputza nekatuten neban Jaunaren antz apurik artuteko.

Munduko ondasunetan ardura lar iminten dabinari dirautse: Mundua laburra da, aberastasunak zerurako pilatu egizuez.

Aragi-zaleai: aragiz ereiten dabena usteltasuna batuko dau, aragiaren poza gozo-sakona da, baña gero artegatasunaz beterik isten dabena; arimearena bariz, iraunkorra ta alaitasunez betetan dabena.

Eta gusti-guztioi: deundu zaiteze, érez da-ta, neuk be bakañik neure bizibideko egin beañak ondo bete dodaz; besterik ez dot egin. ¡Irakurle! yañaitu egiozu ba.

Oaſa.— Emen dagoan geyena Igokundearen Antoino Aba'n «Sakramentu deun-deunaren Domingo Aba'ren Bizitz-edesti»tik artuta dago. Lelengo atzalburuetan imiñi dodanagaitik, Zarate'tar Domingo jaunari eskerak. Eta guzti-guztia oraztuten lagundu daustan Laſakoetxea'tar Bedita Jon Aba'ri biotz-eskerik suetsuenak. Gizakundiaren Luzi Aba'n nayerak be ez daukadaz aiztuta.

Imprimi potest

Fr. Franciscus Xabierius ab Immaculata

Minister Generalis ord. SS. Trinitatis

Romæ 29 Maii 1929

Nihil obstat

Fr. Joseph Dominicus a Sta. Teresia, C. D.

Censor

Victoriæ 25 Maii 1929

Imprimatur

Victoriæ die 27 Maii 1929

† *Matthæus Episcopus*

Victoriensis

Sigillum: Obispado de Vitoria

BILABIDEA

Saferrea	3
Lenengo atzalburua. — Domingo'n yayotzea — Txi- kitako gauzak — Umetatik Jaungoiko-zale. (1901-1908)	6
Bigaraena. — Lenengoz autorkuntza — Jaunartzea — Deun bidean sartuta — Eskola mutil — Frai- letzarako asmoak. (1907-14)	11
Irugaena. — Algorta'ko lekaidegeyen ikastetxean — Gexoagaitik etxera etorri beara — Lekai- detxera bario — Onbidean auera. (1914-17)	18
Laugaena. — Jaungoiko - Zaletasunian sakondu — Ikasteetan auferatu	22
Bosgaena. — Atsekabeak eta laztasunak	31
Seigaena. — Prailegei urte bete — Lekaidekundera eginda beste bete	35
Saspigaena. — Domingo, Erroman — Aita Santua- ren «Gregoriotarena» ikastetxe nagusian ..	38
Zortzigaena. — Ikastartean	47
Bederatzigaena. — Lekaidekunde nagusia — Mesa baria	52
Amargaena. — Irutasun Done-donari oneraspena ..	59
Amaikagaena. — Geure Jauna Eukaristian laztan -lztan — Uzkurtzeran zaintzale	62
Amabigaena. — Jesukristo 'ren Nekaldien gomu- tea — Mixiozale	68

Amairugařena.—Andra Mariari ta Santuai one- raspena	73
Amalaugařena.—Jaungoikoa ta lagun urkoa mai- tatueran euskelzaletu	76
Amabosgařena.—Eskintze edo botoak zainduten zintzo-zintzo	79
Amaseigařena. -- Gexotuta Euskalerira dator— Lourdes'en—Algorta'n	83
Amasaspigařena.—Yuren eta Dima'n	89
Amazortzigařena.—Madrid'en eta Belmonte'n ...	91
Emeretzigařena.—Eriotzea—Eortzia—Obirunea .	95
Ogeigařena.—Santu-usařa	98
Ogetabatgařena.—Domingo Aba'ren bitartez lor- turiko eskeřak	100
Amaya	103

